


emakumeen aurkako indarkeriarik ez!

V
E
E
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA



juanito oiarzabal & juan vallejo & pou anaiak, jabier muguruza, isa diaz, harkaitz cano,
buztingintza, nekazaritza ekologikoa, zapateneo, erlantz urtasun (historia), cabo verde...

AZAROA

GEU ELKARTEA & GAUEKOAK & GEU ELKARTEA

8

• KONTZERTUA

JABIER MUGURUZA: "Enegarren Postala" (urrian aurkeztuko duen bere seigarren lana)

Azaroak 8, 22.30etan ALDABE GIZARTE ETXEAN
(Sarrera: 2.- euro / 30 urtetik gorakoak: 4.- euro)

• POESIA ERREZITALDIA

Javi Alonsoren eskutik: "Manuel BANDEIRA & Joseba SARRIONAINDIA"

Azaroak 8, 00.00etan ALDABE GIZARTE ETXEAN

16

GEUREKIN MENDIRA

**Azaroaren 16an
ALLARTE (1231 m.)**

ARDURADUNA:
BEGO (945266812)
IRTEERA: LOVAINA
PLAZAN, goizeko
9.00etan

26

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

Geu elkartearen ekimenez (ikus. 33. orrialdea)

Azaroaren 26a, asteazkena

Robert Louis Stevenson, Altxor
uhartea, Ibaizabal 1991

Hikaateneo-n, 20.00etan

28

• GEU ELKARTEKO BATZAR NAGUSIA:

Azaroaren 28an, ostirala,
19.00etatik 21.00etara,
LANDATXO GIZARTE ETXEAN

Proposamen berriak eta
iradokizunak GEU elkartera bidali
(945 222153 / geuelkartea@grn.es)

• BERTSO AFARIA, GEU ELKARTEAREN ESKUTIK

Irrintzi Elkartean (Kubo kalean)

Azaroaren 28an, ostirala, gaueko 9etan
SUSTRAI KOLINA eta AMETS ARZALLUS

Gai jartzailea: **Juan Mari Juaristi**

Geu elkarteak antolatutik

(Geuko bazkideak **25euro**, gainontzekoak **30euro**)

Izena emateko epea: azaroaren 25a arte,

Geu elkarte, Tel. 945 222153 e-posta: geuelkartea@grn.es

ZINEMA ETA BAKE KULTURAREN 1. JARDUNALDIAK

AZAROA: 4, 11, 18 eta 25ean (astearteetan)

Ordua: 19:45

Tokia: Guridi Zinemak

Filmak: **La Pelota Vasca**, **Oriente es Oriente**, **El Gran Dictador** eta **Balseros**

- Bonu salmenta: 945 256 176 - Elkarri Araba,
Jakintza, Arriaga Campusa (10 euro)
- Sarreraren salmenta: Guridi Zinemak (3 euro)

Emanaldi bakoitzaren ondotik **solasaldi** bat egongo da, eta **gidariak** honakoak izango dira:

- Azaroak 4: Ramón Alzate Saez de Heredia jn.
- Azaroak 11: (baieztatzeko zain)
- Azaroak 18: Angel Cuerda jn.
- Azaroak 25: . (baieztatzeko zain)

Kolaboratzaileak: Vesa Zinemak, Iru Artes Gráficas eta Elkarri Araba

Beste:

9

Gasteizko Nazioarteko XXVIII Antzerki Jaialdia

PINOTXO (Dar Dar Produkzioak) Familiarentzako antzerkia

Azaroak 9, arratsaldeko 6.00etan, Principal antzokian

13-15

Arabako Natura Institutua

Ikastaroa: Ugaztunen

arrastoak (gaztelaraz)

Informazioa: 945246606

24

Elkargintza eta partaidetza. Ipuin Laburren I. lehiaketa

Gaia: Greba

elkartegintzan

Antolatzaileak: Kulturama
eta Euskadiko

Gazteriaren kontseilua

Epea: azaroak 24

Informazioa: 945 14 10 60

29

EUSKHARAN. BIDAIK EUSKARAZ. MINTZA PRAKTIKA

Euskal Herriko herri euskaldunetara irteerak
hileroko azken larunbatean (5. Urratsa beharrezkoa
da gutxienez)

LEKEITIO

(Autobusa: 15 euro. Janaria eraman)

Azaroak 29

- Irteera: goizeko 9.00etan, Las Nieves-eko
elizatik

- Itzulera: 21.00etan

Informazio gehiago: Euskharan kultur elkarte,
945288275 – Aranbizkarran, Benito Pz. Galdos
plazan – Amaia zentroa (harrera orduak:
astelehenetik ostegunera, 20.00etatik 21.30etara)

**ETA GAINERA: TRIKITIXA, PANDEROA,
TXALAPARTA, BERTSOGINTZA, INFORMATIKA,
MINTZA-PRAKTIKA, IKUS-ENTZUNEZKO GELA
eta KAFE TERTULIA... euskaraz**



ahorik aho:

7-10.
orr.

EMAKUMEOK KOLEKTIBOA: emakumeen aurkako indarkeriarik ez!

BUZTINGINTZA GASTEIZEN:

BUZTINGINTZA eta KAINA tailerrak

11-13..
orr.



gaika:

14-15..
orr.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA. bionekaraba



hiznet.

KUADRILLATEGI EGITASMOA

16
orr.



17-20..
orr.

MENDIZALEAK & SENDIA: sentimenduak, sentsazioak. Pou anaiak, Juan Vallejo, Angel Rosen, Juanito Oiarzabal.



EMAIZE SEXOLOGIA ZENTROA: autoerotismoa (edo masturbazioa).

21.
orr.



22-23..
orr.

ZAPATENEO: urtebete. zorionak!



GAINERA...

- **Han-hemenka** (4-6. orr.):
- **iritzian:** FELIX PLACER - Herria 2000 Eliza / AGURTZANE INTXAURRAGA - Euskal Aktoreen Batasuna.
- **kaleak dio:** Euskal Pilota. Larrua harriaren kontra. Julio Medem.
- **araba bixotzian** (abarrots).

- **KULTURAI SIALDIARI SO** (25-35. orr.):
- **agenda** (2).
- **idazleen gorpila** (*istorio berria) - ISA DIAZ: 'Depende' (25).
- **historia zertzeladak** - ERLANTZ URTASUN: 'Arabarrak: euskaldunak, nafarrak' (26-27).
- **arte txokoa:** JABIER MUGURUZA (28-29).
- **naturaren isladak** (iñaki zorrakin) (29).
- **bidaia:** CABO VERDE (30).
- **errezeta eta denbora-pasa** (31).
- **komikia** (iñigo sarasola) (32).
- **geu-ren gunea:** geu-ren eskaintza eta gomendioa. Irakurle Kluba, HARKAITZ CANO (33-34).
- **artista berrien txokoa:** arabako argazki elkarte (35).

Azala ...



"Utopia, gizonek eta emakumeek eskubide eta aukera berberak izango ditugun mundua, esplotaziorik gabeko mundua, zapalkuntzarik gabekoa..., baina egun hori iritsi arte hainbat pauso ematea ezinbestekoa da: Tolerantzia zero nahi dugu, emakumeen kontrako indarkeria gizartearentzat jasanezina izatea nahi dugu, gizartearen gaitz hori desagertu egin behar dela onartu behar dugu."

marraskia: iñigo sarasola



GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

- Zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune verez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain, josune verez de mendizabal
Argazkiak: edorta sanz
- Bestelako irudiak-bilaketa:** estitxu breñas glz. de zarate
Testuen orrazketa-zuzenketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola
- Kolaboratzaileak ale honetan:** felix placer, agurtzane intxaurrea, iñaki zorrakin, abarrots, hiznet, isa diaz, erlantz urtasun, arabako argazki elkarte eta gamarrako ostalaritza eskola.
- Publizitatea eta Banaketa:** edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:





Felix Placer Ugarte

Herria 2000 Eliza-ko kidea

HERRIA 2000 ELIZA-K BERE 25. URTEURRENA OSPATZEN DU

Urte hauetan (1978-2003) Herria 2000 Eliza aldizkariak bilguneak, elkarriketa, iritzien, ideien eta egitasmoen kontrastaketa landu izan ditu, eskubide eta askatasun demokratiko guztien aitorpena kontuan izanda Euskal Herriaren normalizazioa eta baketzearen aldeko ahaleginetan betiere.

Iritzi ezberdinekiko irekia eta adeitsua izanik, urte hauetan Herria 2000 Elizak argitaratutako 180tik gorako zenbakiak, kolaboratzaile askoren eta aldizkariaren burutze eta banaketa lanetarako taldearen doako ahaleginei esker eutsi ahal izan dion aldizkakotasuna, gure herrian, munduko herri guztiekiko solidaritaz, giza eskubide guztien alde burututako elkarriketa eta gogoetaren aldeko adierazpide idatzia dira.

Bost puntu izan dira Herria 2000 Elizaren lanildoaren ardatza: eztabaida eta bilgune foroa eskaintzea, elkarriketaren suspertzailea, bakearen aldeko langilea eta adiskidetzeta eta gogoeta teologikoaren izatea.

Aldizkariak gain, Herria 2000 Elizak zenbait liburu ere argitaratu ditu, Euskal Herriko arazoa ulertzeko eta etorkizuna bakean eta askatasunean eraikitzeke ahaleginetan erreferentzia garrantzitsu bilakatu direnak. Besteak beste: "Euskadi, la paz es posible", "Autodeterminación de los pueblos", "Tiempo de cerezas"... Euskara bultzatea ere izan da bere helburu nagusia bai artikuluan anitz euskaraz argitaratuz, bai euskal kultura eta hizkuntzan sakonduz, adibidez: "Euskararen berri onak", "Euskara eta euskal

kultura", "Kulturaz eta euskal kulturaz", e.a.

Horrez gain, Herria 2000 Elizak antolatu izan ditu zenbait kongresu, foro jardunaldi: "Autodeterminazio eskubidea", "Giza indibidual eta kolektiboak", "Indarkeria eta askatasuna Euskadin", "Euskal Herria bakera bidean"...

Herria 2000 Elizak, bestalde, eskubide indibidual eta kolektiboaren, bakearen, adiskidetzaren, elkarriketaren eta negoziatio politikoaren alde Euskal Herrian eratu izan diren ekimen herritar askotan parte hartu izan du. Gure gizartearen bereziki esanguratsua da eta, beraz, nabarmendu egin nahi genuke Herrian bizi dugun gatazkaren ondorio mingarrirenak, hots, heriotzak, torturak eta espetxeak, zuzen-zuzen ukitutako pertsonekin aldizkari honek bultzatutako elkarriketa. Aipatzeko dira, halaber, "Maroño elkarriketetan" eta "Munduko Herri eta Nazioei gutuna" ekintzetan Herria 2000 Eliza-k izandako partaidetza.

Herria 2000 Eliza-k bere 25. urteurrena ospatzeko bost Foro antolatu ditu aurten zehar: "Normalizazio politikorako eta elkarbizitzarako proposamen ezberdinak: J. J. Ibarretxeren proposamena eta beste alternatibak" (bi Foro), "Euskara, gaur egungo premiak eta etorkizunerako proposamenak", "Lurraldetasuna eta lurraldeak", "Biktimak eta adiskidetzeta", "Berezko justizia Euskal Herrian".

Honela jarraitzea, hots, gure herriaren kultura, eskubide, bakearen alde, beste herriekiko elkartzunari lotuta, da gure asmoa, hainbeste kolaboratzaile eta irakurleei beren kolaborazioa eta laguntza beti eskertuz.



Oinez 2003

HARRIZ HERRI, IRUNBERRI



**Ikastola berria eraikitzeke
zure laguntza behar dugu**

Caja Laboral-Euskadiko Kutxa: 3035 0058 35 0580077630
 Caja Rural de Navarra: 3008 0042 51 1203795925
 Caja Navarra-Nafarroako Kutxa: 2054 0041 86 9134923815
 Santander Central Hispano: 0049 2572 24 2514210130
 Kutxa: 2101 0381 05 0011331584

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
 Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
*"kalitatea eta
 erosotasuna zure esku"*



Agurtzane Intxaurreaga, Euskal Aktoreen Batasuneko kidea

EZ DA BERDIN

Antzerki proiektu berri baten enseigutan zeharo murgilduta harrapatu ninduen telefonoak. Euskal Aktoreen Batasuneko lagun bat zegoen bestaldean. Gasteizko aldizkari batek, Euskal Antzerkiari Buruzko artikulua bat nahi zuela eta niri botatzen zidala erronka. Eta hizketan nengoela, burura etorri zitzaidan egun batzuk lehenago Lakuara egindako bisita. Hain juxtu entseiatzen ari nintzen antzerki produkzio berriaren diru-laguntzaren eskakizunerako defentsa egitera joan nintzenekoa. Eta horren haritik joan behar zuela artikulua honek ere pentsatu nuen orduan.

Eta harrez geroztik, burukomin ugari sortu dizkit kontuak.

Ze, hitzek ere euren garrantzia dute, eta ene ustez, ez da berdin Euskal antzerkiak hitz egitea edo Euskalerriko antzerkiak, Euskadin egiten denaz, esan nahi dut.

Euskal antzerkia... existitzen ote den ere nire zalantza handiak ditut... Zerk ematen dio horrela izendatzeko eskubide hori? Autorea euskalduna izateak? Euskal Herrian eszenaratzeak? Euskaraz estreinatzeak? Euskaraz bakarrik jarduteak? Euskal Herriaz mintzatzeak? Ala beste barik, hemen, Euskal Herrian edo politikoki zuzenago hitz eginez, Euskal erkidegoan izen soziala emanda duen antzerki talde batek egiteak?

Euskal erkidegoa ez da munduaren bestaldean galduta dagoen lurralde bat. Munduko Europan gaude, eta beste edozein arlotako enpresa batekin gertatzen den bezala, hemen ere, merkatuak agintzen du. Zorionez edo zoritxarrez... Eta balio duena emanaldiak egitea da, hemen eta han. Ahal dela edonon. Eta hori hala izan dadin hainbat faktore hartzen dira kontutan proiektu bat aukeratzeko orduan: proiektuaren berezko balioa (autore ezaguna, gaiaren zabaltasuna, taldearen traiektoia, lan-taldearen kurrikuluma, estilo proposamena), proiektuaren bideragarritasuna eta proiektuaren esplotaziorako plana. ...Izan ere, aspaldi utzi genion antzerki taldeek talde izateari, produkzio enpresa bihurtzeko bidean.

Eta bide horretatik joan dira gure ahaleginak azken urte hauetan. Eta behin baino gehiagotan, proiektu bat edo beste aukeratzeko garaian, gure benetako nahiak galtzen atera dira, merkaturako egokiago ikusi dugun beste baten alde. Baina merkaturak ez da ikuslegora belaunikatzen den mamutzar bat. Ikuslegoak zer esana badu, jakina, baina baita instituzioek, programatzaileek,

banatzaileek... ere, eurek marrazten baitituzte merkatuaren nondik norako nagusiak. Eta merkatuak egun, gutxi daki gurea bezalako hizkuntza minorizatu batez, euskaraz esan nahi dut.

Eta horregatik duela egun batzuk, taldeko proiektuaren defentsa egiteko, Lakuara egin nuen bisitaldian, beste behin ere ez ninduen harritu, bai etsitu ordea, mahaiaren bestaldean epaimahai gisa zeuden erdiek, ez zutela euskara ezagutzen ikusteak, ez behintzat testua ñabardura guztiekin ulertzeko moduan. Eta egun esan bezala, antzerki enpresa guztion helburua, gurearena barne, errentagarritasun artistiko eta ekonomikoa lortzea bada ere, horra ailegatzeko bide ez-berdinak daude.

Datu objektibo bat da proiektu baten baloraketan, euskarak, puntuazio mailan duen gehieneko balioa, ehuneko bosta besterik ez dela. Eta ehuneko bost hori eskuratzeko baldintzetako bat, euskaraz estreinatzea da. Ze, normalena gure artean, estreinaldira arte dagoen bide guztia erdaraz egitea da. Eta estreinaldirako hamabost egun geratzen direnean, estu eta larri lantzen da bigarren bertsioa, euskarazkoa. Baina baldintza horrek ur gutxiegi harrotzen du. Ikusi besterik ez dago, gero eta sarriago gertatzen ari dena. Puntuaketako beste baldintza guztietan eroso dabiltzanak ez dutela ehuneko bost horren inolako premiarik dirulaguntza eskuratzeko orduan, eta uko egiten diotela baldintzari. Jakina, dirutan, errentagarriagoa da ehuneko bost horri uko egitea, behar den bezala egindako euskarazko bertsio batek eskatzen duen diru galerari aurre egitea baino. Are gehiago, erdaraz jorratzen dutenak zalantzan jartzen ari dira gero eta gehiago bigarren bertsioaren beharra, euskarazko bertsioaren beharra alegia. Ze, aurreko adibidearen antzera, honek eskatzen duen giza eta ekonomi ahalegina handiagoa da, emanaldi horiekin lortuko duten diru sarrerak emango diena baino.

Eta zer esanik ere ez, antzerki enpresok asko dugu egiteko arlo honetan, baina are gehiago dute euskal instituzioek. Euren ardura baita Euskadin egiten den antzerkiak, gure hizkuntzarekiko behar duen errespetua bermaraztea. Eta egun zoritxarrez, ez dago beste modurik hori bideratzeko, beste arlo batzuetan egin den bezala, antzerki enpresoi ere, benetako euskal antzerki bat sortzeko eta jorratzeko baldintzak erraztea eta erakargarriagoak egitea baino ez.

"Euskal Pilota. Larrua harriaren kontra". Julio Medem.

Gora-behera guztiak atzean utzita, azkenean ikusi ahal izan dugu Julio Medem-en "La Pelota Vasca. La piel contra la piedra" filma gure zine aretoetan. Euskal gatazkaren inguruko film-dokumental honek gizartean dauden ikuspuntu desberdinen islada onesta besterik ez du izan nahi. Iritzi ugari entzuteko aukera, zabala eta anitza, elkarrizketarako gonbitea... entzundako iritzietako batzuk dira. Finean, ikusi beharreko filma. Honatx kalean diotena:

1. "La pelota vasca" filma Ikusi ahal duzu edota ikusteko asmorik duzu?



ARITZ ARANGUREN
Argazkilaria

- Ez dut ikusi, asmoa bai baina.
- Ondo hitz egin didate dokumentalaren inguruan, interesgarria izan daitekeela deritzot.

HODEI ESTEBAN
Ikaslea

- Bai, noski.
- Gehiago espero nuen. Euskal Herriak kanpora bizi direnek egia ezagut dezaten ondo dago.



2. Zer iruditu zaizu edota zer espero duzu?



BONI GARCIA
Mezularia

- Ez, baina interesa badut.
- Gatazkaren ikuspuntu objektiboa espero dut.

JULEN ZULAIKA
Ikaslea

- Bai.
- Egoera ondo isladatzen du, batez ere ikuspuntu okerrak entzuten dituztenek benetan bizi duguna ezagut dezaten.



Araba bixotzian

ALKATEA ETA ZINEGOTZIAK BEUDEN SOLDATA 160 DUTE

BAI, BAINO GERO ETA ESKALE GEHIAGO DAGO KALEETAN ETA EGOERA HONI AURRE EGITEKO NEURRI BAT IZAN DA...



AZKEN FINEAN GASTU SOZIALA BETERIK EZ DA !!

ABAROTS 03



“EMAKUMEOK” PLATAFORMA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERARIK EZ

**“Instituzioentzat emakumeen kontrako indarkeria
ez da kezka nagusietako bat”**

Kalean pankarta ugari ikustera ohituta gauden herri honetan zaila da beste bati erreparatzea azken hilabeteetan. Atzean emakumeak nagusi direla ikustea izango da agian hiritarren arreta deitzea posible egiten duena. Izan ere, duela hilabete batzuk hileko lehen ostegunean emakumeen aurkako bortxakeria salatzeako hitzordua jarrita dago, Emakumeok kolektiboaren eskutik: arratsaldeko 8etan Andre Maria Zuriaren plazan egiten den kontzentrazioa.

emakumeok kolektiboa

• Nola sortu zen plataforma eta ostegunero kontzentrazioak egiteko deia?

Taldea hainbat jatorri, adin eta ideologiatako emakume-talde batetik sortu zen; 2003ko martxoaren 8ko kontzentrazioan, gai honi buruz lehenago ere behin eta berriro hitz egin ondoren, egoera zeinen larria zen ikusita, zerbait egin behar genuela erabaki genuen, nolabaiteko erantzun bat ematea beharrezkoa zela.

Emakumeok kalera irten behar dugu eraso bakoitza salatzeke, hilketa bakoitza salatzeke, hiltzaile asko zigorrik gabe daudelako eta gizarte honetan ohiko bihurtzen ari den egoera delako. Ezin dugu hori onartu.

Deialdia egun jakin baterako egiteak ekimen honen hedapena bultzatuko duela uste dugu eta gehiago zabalduko dela. Dena dela, sortzen eta antolatzen ari den talde bat gara eta gauzak aldatu egin daitezke.

• Nortzuek (taldeak-pertsonak) hartzen dute parte?

Ekimena oso berria da. Oraingoz mugimendu feministarekin lotutako emakumeak, ikasleak, profesionalak etab. hurbildu dira kontzentrazioa; oro har, emakume izate hutsagatik nola hiltzen gaituzten ikusita amorrua sentitzen duten emakumeak hurbildu dira. Gure nahia deialdia sendotzea eta zabaltzea da, emakume askok arazo hori bere egin dezaten eta borroka honetan parte har dezaten.

• Sindikatuen, alderdi politikoaren edo erakundearen elkartasunik edo laguntzarik izan duzue?

Ez dugu eskatu. Gure ekimenaren helburua emakumeak dira, emakumeok gara protagonistak eta emakumeok zuzendu eta bultzatu behar ditugu emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan eman beharrezko pausoak. Sindikatuak, alderdi politikoak edo instituzioek badute non jardun eta dagokien tokian beren betebeharra bete dezaten eta, horrez gain, emakumeen aldarrikapenak babes ditzaten eskatzen diegu. Talde horietako emakumeek kontzentrazioetan parte hartu beharko lukete, jakina.

Ez dugu siglen zerrendarik nahi.

• Zein da zuen aldarrikapena?

Utopia, gizonek eta emakumeek eskubide eta aukera berberak izango ditugun mundua, esplotaziorik gabeko mundua, zapalkuntzarik gabekoa..., baina egun hori iritsi arte hainbat pauso ematea ezinbestekoa da:

Tolerantzia zero nahi dugu, emakumeen kontrako indarkeria gizartearentzat jasanezina izatea nahi dugu, gizartearen



gaitz hori desagertu egin behar dela onartu behar dugu. Emakumeak mobilizatu nahi ditugu, gizartea aldatzeko subjektu aktibo izan nahi dugu.

Instituzioek arazo hau konpontzeko konpromisoa hartzea nahi dugu, hori baita beren eginbeharra, baina ez partxeo eta lege partzialen bidez, orain arte bezala, baizik eta beharrezko baliabide ekonomikoak jarritz, emakumei eta emakumeen erakundeei entzunez...

Eragile sozializatzaileek (ikastetxeak, komunikabideak, etab.) arazoaren konponketan parte hartzea nahi dugu.

Azken batean, ez dugu ezer asmatu. Ez dira proposamenak edo aldarrikapenak falta, baina oraingoz, helburu nagusia protesta kalera ateratzea da, ehunka emakume jasan behar duten lazturaren aurrean eta gizartearen isiltasuna ikusita, konpromiso feminista borrokarako bidetzat hartzea. Izan ere, historiak erakutsi baitugu emakumeen antolaketa eta borroka ezinbestekoak direla, eta are gehiago gai honetan.

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztietxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

• **XXI. mendearen hasieran emakumeen aurkako erasoak oraindik ere tabu bat dira?**

Gaur egun emakumeen kontrako erasoei buruz hitz egiten da, ez dira duela urte batzuk bezala ezkutuan uzten, baina erasoak salatzeak beldurra nagusi da oraindik eta honelako erasoen aurrean gizarteak dituen aurreiritziek hortxe jarraitzen dute.

80ko hamarkadatik, oro har mugimendu feministak eta, zehazki, Arabako Emakumeen Asanbladak, hainbat batzorde antolatu zituzten tratu txarren izaera "isila" salatzeak, egoera horretan zeuden emakumeei laguntzeko eta tratu txarrak salatzeri bultzatzeko (garai hartan oso zaila zen) eta instituzioei egoera horri erantzunen bat eman zezaten eskatzeko.

20 urte hauetan etengabe egindako salaketak oihartzuna izan du eta gero eta emakume gehiagok salatzen dituzte tratu txarrak, gizartearen zati batek badaki tratu txarrak ez direla eremu pribatuko arazo bat, etxean konpondu beharreko zerbait ez dela. Baina oraindik bide luzea dago egiteko.

• **Azken urteetan nolabaiteko aurrerapen bat gertatu da, baina oraindik ere gizarteak ikusten ez duen arazoa dela uste duzue?**

Erasoen [ez bakarrik etxean] ebidentzia eta ankerkeria ikusita, ezinezkoa da gizarteak ez ikustea edo erasoak daudela ez jakitea, baina emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako guztia ez da oinarritzko giza eskubideen kontrako erasotzat hartzen eta ez diote beste indarkeria mota batzuei ematen dioten garrantzi berbera ematen. Badirudi lehen

mailako eta bigarren mailako hildakoak daudela. Sexu-bazterketa egiturazko arazoa da eta, besteak beste, horixe da tratu txarren jatorrietako bat.

• **Zuen ustez, zeintzuk dira honi irtenbide bat ematen hasteko bideak, klabeak?**

Arazoa ez da konponduko gizarteak emakumeen bazterketa-mota guztien kontrako borrokan aurrera egiten ez duen bitartean, emakumeok legearen aurrean nahiz pertsona gisa ditugun eskubideak aitortzen ez zaizkigun bitartean, hots, gizonen eskubide berberak ditugula onartzen ez den bitartean.

Baina ezin gara besterik gabe gizartearen erantzunaren zain gelditu; indarkeriaren biktimak babestu behar ditugu eta gure laguntza eskaini behar diegu, eta instituzioei eta erakunde politikoei dagokie laguntza-planak, plan legalak nahiz hezkuntzaren esparrukoak martxan jartzea. Hala ere, emakumeen kontrako indarkeria lehen mailako arazoa dela onartzen ez duten bitartean, emakumeok hauteskundeetarako objektu gisa erabiltzen gaituzten bitartean... kontuak luze joko du.

• **Instituzioen lanari zer deritzozue eta zer eskatzen diezue?**

Instituzioek publikoki gauza ugari agindu dituzten arren, gero ez dituzte bete. Indarkeria gero eta zabaldutako dagoen arren eta hilketak gero eta ugariagoak diren arren, neurri partzialak baino ez dira hartu eta, gainera, neurri horiek gero ez dira bete, iraingarria da; instituzioentzat emakumeen kontrako indarkeria ez da kezka nagusietako bat eta ez dute hori konpontzeko neurri serioerik hartu.

MultiOpticasen benetako Multieskaintzak

MULTIOFERTAS

MULTIOPTICAS

bonardi aire
ARMAZOIAK

49€ baino ez

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Zuriaren plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eskaintza honek 03/09/15etik 03/10/31ra arte du balioa

Informa zaituz gure Kreditu Txartelen abantailaz



Adibide bat emango dizut: Vitoria-Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak lehiaketa bat antolatu dute, sari eta guzti, jaietako kartel bat izango balitz bezala: "EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREKIN AMAITZEKO proiektuak prestatzeko IDEIEN I. LEHIAKETA"!!!!... Zer gertatuko litzateke Udalak terrorismoarekin amaitzeko ideien lehiaketa bat antolatuko balu? Iskanbila izugarria sortuko litzateke. Joka dezagun zentzuz.

Gai honi lehentasuna emateko eskatzen diegu eta indarkeriaren ondorioak jasaten dituzten emakumeen babesa eta bizi-kalitatea hobetzeko neurriak berehala hartzeko, emakumeen eskubideei buruzko gizartearen kontzientzia aldatzeko neurriak hartzeko. Hitz gutxitan esateko: emakumeen kontrako indarkeriaren neurria ebaluatzeko sentikortasuna, beharrezko neurri judizialak, politikoak, hezkuntzazkoak etab. ezartzeko eraginkortasuna, arazoari irtenbidea bilatzeko prebentzio-neurriak.

2.681 SALAKETA ETA 27.000 ERASO

Dagoeneko inork ezin du ukatu emakumeen aurkako bortxakeria arazo larria dela, zenbakiak ikustea baino ez dagoelako.

Ez da urte asko pasa erakundeek guztiok harritzen gintuztela lehen aldiz emakumeek etxean jasandako tratu txarrak zirela eta jarritako salaketan kopuruarekin. Harridura handitu egin zen benetako kasuen %10 baino ez direla salatzen azaldu zigutenean. Hori horrela bada, iaz Euskal Herrian ia 27.000 tratu txar egon ziren, 2.681 salaketa (kopuru bikoitza, aurreko urtearekin alderatuz) jarri baitziren.

Arlo honetan gauzak asko aldatu diren susmoa du gizarteak, baina hori arriskutsu suerta daiteke, arazoa konponduta edo konponbidean dagoen irudia zabaldu daitekeelako.

Amaitzeko, daturik datu, Estatuan 78 andrazko hil dira aurtan genero bortxakeria deitzen den horrengatik, eta horrek esan nahi du emakume izateagatik hil dituztela.

Azaroak 25, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

• Zein izen eman beharko genion emakumeen aurkako indarkeriari?

Gaztelaniaz mila erabiltzen dira eta terrorismoaz ere hitz egin da...

Emakumeen kontrako indarkeria etxeko terrorismotzat har daiteke, genero-indarkeria, emakumeen kontrako indarkeria..., edozein izen erabilia ere argi dago matxismoaren ondorio zitalenaz ari garela. Emakume batzuk uste dugu termino egokiena emakumeen kontrako indarkeria dela, genero terminoa ez baita oso argia, nahasgarria da eta askotan indarkeriaren subjektua (gizonak) eta objektua (emakumeak) ezkututzen ditu.

• Indarkeria fisikoaz gain, psikologikoa ere hortxe dago...

Emakumeak tratu txarrak jasaten ditutenean beheratu egiten dute, eskubiderik ez duela edo errespeturik merezi ez duela esan nahi diote, iraindu egiten zaio, jabetza material baten moduan tratatzen dute (kantuak ere horixe dio: "la maté porque era mía"); beraz, ezin ditugu bereizi indarkeria fisikoa eta psikologikoa.

Baina badira emakumeen kontrako beste indarkeria-mota batzuk ere, ez direnak kontuan hartzen: era askotako eraso sexualak, lanpostu berdinetan soldata txikiagoak izatea, desorekak lanpostuak eskuratzeko garaian..., bazterketa oro indarkeria mota bat da, horixe salatzen du mugimendu feministak.

• Halako eraso baten aurrean nora jo behar du edozein emakumek laguntza bila? Zeintzuk dira pausoak?

Eraso-motaren arabera, toki batera edo beste batera jo behar du. Ez da gauza bera kalean erasotzea, etxean erasotzea, lanpostuan erasotzea, ikastetxean erasotzea..., dena dela, eraso-motaren arabera zer egin behar den zehazten duten gidaliburuak daude.

Bukatzeko, Gasteizko emakume guztiei, hilero, lehenengo ostegunean arratsaldeko zortzietan Andre Maria Zuriaren plazan egin ohi den kontzentrazioan parte hartzeko deia egin nahi diegu; hala, gure presentziaren bidez, gizarteari argi utzi nahi diogu EZ GAUDELA PREST EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA GEHIAGO ONARTZEKO.



BUZTINTZA tailerra: Ines Mari Glz. de Zarate (eskubian) eta Txaro Blanco.



KAINA tailerra: Koro Martinez eta Txaro Marañon.

BUZTINGINTZA GASTEIZEN: BUZTINTZA eta KAINA TAILERRAK, BERRIKUNTZARI SO

Ines Mari Gonzalez de Zaratek eta Txaro Blancok tandem egokia osatzen dute jada hogeitaz urtez elkarrekin "Buztintza" (Hedegile kalea, 120) tailerrean arituz geroztik. Ines Mari diseinatzaile eta Txaro tomulari lanean, ohiko euskal zeramika dute euren berezitasunetako bat, jorratzen duten beste esparru bat diseinuzko artelanak izaki. Bikote honen lanaren adibide txiki bat tailerraren erakusleihoan daukate, irailaren bukaeran izandako Erdi Aroko Merkatuko erakusleihoen saria eskuratu zutelarik.

Beste bi hamarkada eman dituzte Txaro Marañonek eta Koro Martinezek buztingintzan jardunez. Egun "Kaina" izeneko tailerra dute Errementari kaleko '6' zenbakian. Bertan zeramikaren esparru berritzaileena lantzen dute eta denboraldi hobeak eta

txarragoak egon diren arren, bi lagun hauek sari ugari irabazi dituzte banaka zein bikoteka.


- Ze aurki daiteke zuen tailer-dendetan?

• **BUZTINTZA:** Ohiko euskal zeramika mantentzen dugu, hau da, betidanik hemen erabili den zeramika, buztin gorria eta esmalte zuria, oinarritzko dekorazioarekin, berde, marroi eta urdin kolorekoa. Bestetik, belaunaldi berriko zeramika ere badaukagu, diseinu propioak, alegia. Azkenengo honek ez dauka zerikusirik tradizionalarekin eta batez ere enkarguak landu ohi ditugu: kongresuak, jatetxeak, hotelak...

• **KAINA:** Guk zeramika garaikidea lantzen dugu batik bat.

Hautsontzi eta pitxarrez gain zeramikak gauza anitz eskaini ditzake. Ezezagutza nagusi, aldiz, buztingintzan modu profesionalean aritzen direnek arte honetaz bizitzea zailtasun handia dela aipatzen dute. Gasteizen badira bi tailer honetara aspaldian dedikatzen direnak. Euren txokoetan sartuz gero, zeramikaren arteak eskatzen duen lana eta gozatzen dituen baliabide zabalak erraz uler daitezke.

buztingintza



Hasieran konketak, erretiluak eta platerak ere egin izan ditugu, nolabait egiten genituen artelan garaikide eta era berean dekoratzaile horiei irteera emateko.

- Zein da zuen ustetan egun zeramikak duen erakargarritasuna?

• **BUZTINGINTZA:** Jendearentzat benetan erakargarria dena buztina bera ukitzea dela pentsatzen dugu. Dena den, profesional moduan aritzen zarenean jendearentzat ezezaguna da gure lana; izan ere, pitxer eta hautsontziez gain gauza gehiago ere badira. Tradizionalak eta berritzaileak, oster, erosle ezberdinak dituzte, hots, zeramika mota bat kontsumitzen duenak normalean ez du bestea begiratu ere egiten. Eta bitxikeria moduan aipagarria da ohiko euskal zeramika tradizionala estatu espainoleko jendearentzat erakargarria den heinean, gainontzeko turistek ez diotela jaramonik egiten, euren jatorrizko herrietan ohikoa eta oso erabilia delako. Gasteiztarrei dagokienez, egun duela hogeitazko urteko bezero berberak ditugu. Izan ere, buztingintza gutxienena da.

• **KAINA:** Orokorrean jendeak eskatzen dizkigun gauzak enkarguz egiten ditugu. Katalogo bat ere badaukagu, non egiten ditugun lanak erakusten ditugun, nolabait jendeak artelana kokatzeko orduan ideia bat izan dezan. Baina egia esateko, Gasteizen zeramikagintzaaren egoera ez da batere ona. Zeramika denbora-pasatzat hartzen da. Erakundeek ez dute inolako laguntzarik ematen eta hortaz, baldintza txarretan dago egun buztingintza. Gauzak erraztu beharrean kontrakoa egiten dute.



Koro Martinez

Txaro Marañon



- Hortaz, zailtasun horiek direla eta, zein leku hartzen du buztintzak arte munduan?

• **BUZTINTZA:** Zeramikagileok beti gaude hari-harian. Zeramikagile orok dauka artisau ezaugarria, izan ere, buztintza tradizionalan ez baituzu berrikuntzarik egiten; berritzailean, oster, forma, diseinua... etab. sortzen dituzu, sortzailea zara, beraz. Nolanahi ere, buztintzan labeak dauka beti azken hitza. Hortaz, zure lana nola geratuko den bukaeraraino ez duzu jakingo, ez duzu sekulan arte honen kontrol osoa izango.

• **KAINA:** Espresio mota honek zailtasunak dituela argi dago, jendeak zeramika egitea poteak egitea dela pentsatzen du eta. Gainera, artisautza barruan kokatzen den arren, zeramika

garaikidearen egoera bestelakoa da. Artisautzan sartzeko egun autonomo izatera behartzen zaituzte, eta hori dela medio, jende asko kanpoan geratzen da. Egund ez dago buztintzarako laguntzarik eta Zarautzen egiten zen leihaketa bakarra kendu zuten. Ondorioz, orain gu zeramikagile kolektibo batean mugitzen ari gara nolabait egoera honi buelta emateko. Egitasmo berria da hau eta gure asmoa zabaltzea eta ezagutaraztea da.

- Gasteizen mugimendu gutxi dagoela aipatu duzue, salmentak gainontzeko lekuetan bilatzen dituzue?

• **BUZTINTZA:** Gure kasuan ezagutzen gaituena guregana dator eta kitto. Izan ere, dendei ezin dakieke saldu, zeren dendetan oso prezio merkeetan saltzen baitituzte tirada

handiko gauzak. Eta hori da jendeak azken finean nahi duena. Artelan baten prezioa galdetzen dutenean pagotxa bat izan behar duela pentsatzen dute, eta zelanbait buztintza merke izatearekin lotzen dute. Azoketara ere ez gara joan ohi. Joan izan gara baina esperientzia ez da ona izan. Ezagutarazteko modu bat bada ere, ez da kasik saltzen.

• **KAINA:** Bai, gu joan ohi gara Gasteiztik eta Euskal Herritik kanpo eta erakusketak ere antolatzen ditugu. Mementoz guk biok beste hiru neskekin "Cerca del límite" izeneko erakusketa mugikorra daukagu; Zaragozan antolatua izan da, eta Zaragoza da zeramikagintza mailan egun mugimendu gehien daukan tokia, hortaz, parte hartzea erabaki genuen. Gasteiza ekartzea ere pentsatzen ari gara baina oso zaila dago.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA, geroa lurretik hasi

edurne begiristain

argazkiak: oskar ugarte eta ania ibisate

Nekazaritza ekologikoak gora egin du azken urtebetean Euskal Herrian, batik bat behi eroen kasuen eraginez. Araban, gorakada hori motelago ematen ari bada ere, apurka-apurka indarra hartuz doa. Kalitatezko produktuak eta ingurumenarekiko errespetua oinarri hartuta, nekazaritza ekologikoa etorkizuneko jarduera izan daiteke gure herrian.

Araban, 30 nekazari inguruk lantzen dute nekazaritza ekologikoa, Bizkaian eta Gipuzkoan baino dezente gutxiago. Haatik, motel bada ere, gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da jarduera hori gure lurraldean, eta hemendik urte batzuetara garapen inportantea izan dezake.

Euskal Herrian oro har gorakada itzela izan du nekazaritza ekologikoak azken urtebetean, behi eroen kasuen eraginez, besteak beste. Gertaera horien harira, kontsumitzaileak jaki osasuntsuak erosteko ardura hartu zuen, eta nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua egin. Izan ere, nekazaritza ekologikoaren ezaugarri nagusiak horietxek dira: kalitatea, ingurumenarekiko errespetua eta nekazal munduaren berreskurapena.

Horietxek dira nekazaritza ekologikoak ohiko nekazaritzarekiko dituen alderik nagusiak, Marcelino Santiago Bionekazaritza elkarteak kideak azaldu digunez: "Ohiko nekazaritzak kantitatea bilatzen du, era industrialean lan egiten du, elementu kimikoak erabiltzen ditu...; nekazaritza ekologikoak, berriz, modu naturalean lan egiten du produktu osasuntsuak egiteko".

Araban jauzia emateke dago

Arabari dagokionez, nekazaritza ekologikoa oraindik sendotzeke dago. Bionekazaritzako kideak bi arrazoi ematen ditu moteltze hori azaltzeko. Batetik, Arabako nekazal ustiakuntzak Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak baino dezente handiagoak direlako, eta bestetik, Arabako nekazari ekologikoek lantzen dituzten produktuak merkaturatzea "zailago" dutelako. Izan ere, Araban zereala, patata eta erremolatxa lantzen dira nagusiki, eta horiek saltzeko ohiko nekazaritzak erabiltzen ez

dituen bideak bilatu behar dira, Santiagok esaten duenez.

Ildo horretan, nekazaritza ekologikoa lantzea erabakitzen duen nekazariak "ahalegin" berezia egin behar du bestelako merkaturatze bideak aurkitzeko. Horri gehitzen bazaio halako produktuak ohikoak baino garestiagoak direla, nekazariak zailago izaten du merkaturatzea egitea. Hori gutxi balitz, Eusko Jaurlaritzak *labela* duten produktuen alde egiten duen kanpaina ere nekazaritza ekologikoaren garapena "geldiarazten" ari dela iritzia dio Santiagok.

Hala ere, nekazaritza ekologikoaren garapenean kontsumitzaileak zeresan handia duela uste du Santiagok. "Kontsumitzaileak arropa garestia erosten du kalitatezkoa dela ulertzen duelako, beraz, gauza bera egin beharko luke janariarekin, eta merkaturatzen produktu osasuntsu eta ez hain merkeak bilatu beharko lituzke".

PACen erreforma eta etorkizuna

Nekazaritza ekologikoaren etorkizunari begira, PAC Nekazal Politika Bateratuaren erreformak eragin itzela izango duela dio





Bionekaraba azoka (azoka ekologikoa, nekazari eta abeltzaintzat erakusketa eta informazio gunea, elaborazio tailerrak)

Bionekazaritzako kideak. Izan ere, PACen erreformak ohiko nekazaritzaren "krisia" ekarriko duela uste du Santiagok, eta horren ondorioz bost urte barru nekazaritza ekologikoaren garapena etorriko dela. "Dagoeneko badira zenbait nekazari aukera hori aztertzen dihardutenak, erreformaren bitartez beren diru-sarrerak behera egingo dutela dakitelako", diosku.

Beraz, jarduera honen etorkizunari baikor begiratzen dio Bionekazaritzako ordezkariak. Gainera, Gasteizen kontsumoa "modu sostengarrian" handitzen ari da (egun 500 familia inguru Bio Alai denda ekologikoaren bazkide dira), eta hori poztekoa dela uste du Santiagok.

BIONEKAZARITZA ELKARTEA

Bionekazaritza Nekazaritza Ekologikoaren hedapenaren alde Gasteizen lan egiten duen elkarte bakarra da. Bionekazaritza, Euskal Herriko Ekonekazaritza Federazioaren barruan dago. 1996az geroztik lanean dihardu, eta egun 60 bazkide inguru ditu: batzuk nekazariak eta abeltzainak dira, eta beste asko nekazaritza ekologikoarekiko interesa duten pertsonak. Urtean jarduera ugari antolatzen dituzte, betiere nekazaritza ekologikoa zabaltzeko: Bionekaraba azoka, hitzaldiak eta ikastaroak.

15

Floridako altxorra ! 35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ



Pasa den urriaren 13an, HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroaren 3. edizioaren, 2003-2004 ikasturtea, aurkezpen ekitaldia burutu zen. Bertan, internet bidezko graduondoko ikastaroaren nondik norakoen azalpena egin ostean, zalantzarik gabe soziolinguistikaren arloan interes berezia duen esperientzia baten berri eman zigun Diego Egizabalek bertaratutakoei: Kuadrillategi Egitasmoa.

HIZNET, Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak eta EHUKo Soziologia 2. sailak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, UEU eta SEIren laguntzaz antolatutako internet bidezko Hizkuntza Plangintza ikastaroa da. Honen asmo edo helburu nagusia euskararen normalkuntzan diharduten edo interesa duten guztiei soziolinguistikako formazio sakona eta sistematikoa eskaintzea da. Are gehiago, egun euskararen aldeko ekimenetan zein soziolinguistika gaietan ari direnei azken urteotan egin diren ikerketak, jaso diren datuak eta garatu diren planak hurbiletik ezagutzeko aukera ematea da. Betiere, ikuspegi praktikoa batetik, eta arloko eragileen elkar ezagutzea eta informazio elkartrukea bultzatuz.

Hau dela eta, Diego Egizabal hitzaldi bat eskaintzera gonbidatu genuen; izan

KUADRILLATEGI EGITASMOA. HIZNET

amaia lasagabaster, hiznet ikastaroaren arduradun teknikoa

ere, egitasmoak euskararen normalizazio prozesuan berezko taldeek duten garrantzia ohartarazteko oso baliagarria izan baitzen hitzaldia.

Kuadrillategi, bertan parte hartzen duten gazteentzat, aisialdiko ekintza bat besterik ez da. Hala ere, egitasmoaren helburua hizkuntz ohituraren aldaketa ematea da. Horretarako, nolabaiteko negoziatio bat egiten dute. Hau da, toki edo espazio fisiko bat, aisialdiko ekintza ezberdinak eta jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dizkiete gazteei, lagun koadrila bakoitzetik gutxienez bost kidek parte hartu eta jarduerak irauten duen bitartean euskaraz aritzeko eskatzen zaielarik trukean. Gainera, ez zaie euskaraz ondo hitz egitea eskatzen, soilik hitz egitea baizik.

Datuek, euskararen kale erabilera urria dela adierazten dute nahiz eta jende gehiagok euskaraz jakin. Jakintzak erabilera ekarriko zuela uste izan bazen ere, usteak ustel. Izan ere, euskararekin ez da hala gertatu. Ondorioz, hezitzaile eta ikertzaile taldeak, lagun koadrilen artean euskararen erabilera posible egiteko saialdiari eutsi zion.

Orain 12 urte ikerketa ildo berri bati ekin zion Pello Jauregi Doktoreak, gazte lagunarte bat hartu eta haren euskalduntzeari lotu zitzaionean. Ildo berri honek berezko taldeak ditu oinarri eta abiapuntu, eta lan ustea, berriz, hizkuntza jokaera bat finkatzea funtsean eta nagusiki talde-lana dela. Honek zera esan nahi du, hizkuntza jokaera, taldeak arautzen duen jokaera dela, eta horrenbestez taldeko kide guztiek betetzen duten araua dela. Hitz gutxitan: taldearen hizkuntza araua alda dezaten, taldea bera behar dugu eragile, hari baitagokio, eta ez beste inori, berak adostutako arauen aldaketa.

Berezko taldeen euskalduntze bidea,

funtsean, gizarteratze prozesu bat antolatzean datza, zeinetan batzuek gizarteratzaile egitekoa, eta beste batzuek gizarteratuarena egiten duten aldi bertsuan. Helburua: berezko harremanak euskalduntzea eta kideen euskararen kalitatea eta gaitasuna hobetzea.

Pello Jauregi Pasai-Antxon abiatu zuen eskuhartzean, bi gauza lortu nahi zituen: erdaraz bizi zen lagunarte batean hizkuntz ohituraren aldaketa burutzea; eta bestetik, hizkuntz ohituraren aldaketa prozesu horren gaineko jarraipena egitea prozesuaren gakoak topatu nahian.

Hastapen teoriko eta metodologikoak astindu ostean, lagunartearen beharrei hobeto doitzen zitzairen eskuhartze diseinua osatu zuen Pellok. Diseinua geroxeago Lasarte-Oria abiatuko zen. Honelaxe, bigarren ikerketa ziklo bati hasiera eman zitzaion Lasarte-Oria herrian. Kuadrillategi izenez agertu zuen bere burua egitasmoak eta hiru urtez jardun zuen esperientzia pilotu gisa aipatu herrian, harik eta 2000ko ekainean ikerketa fasea burutu eta datuak ezagutzera eman ziren arte. Lasarte-Oriako esperientziak bide onetik zihoazela erakutsi zien arren, oraindik diseinua gehiago findu behar zela konturatu ziren. Horregatik, diseinu berri bat osatu zuten.

2001-2002 ikasturtean zortzi udalerri abiatu zuten Kuadrillategi egitasmoa: Lasarte-Oria; Andoain; Urnieta; Beasain, Deba, Bergara, Aretxabaleta eta Astigarraga. Urtebete beranduago beste hiru herri helduko zioten egitasmoari: Atarrabia, Burlata, eta Uharte. Hirugarren ikerketa zikloa aurtengo ekainean amaitu da, hortaz, oraindik ez dituzte eskura datuak.

Lasarte-Oriako esperientzia amaituta, berezko taldeetan oinarritutako ikerbideari heldu eta segida ematearren, ikerketa taldea osatzen zuten lagunek **Kuadrillategi Ikerketa eta Aholkularitza** elkartearen eratu zuten.

“Oso pozik doaz baina etxean gelditzen garenok gara gaizki pasatzen dugunok”, dio Juan Vallejoren amak. Argi dago mendizalea izateak arrisku biziak hartzen dituela bere baitan. Baina hori ez da nahikoa aitzakia mendizale sena baretzeko. Joaten direnen eta gelditzen direnen kontrako edota antzeko sentsazio eta sentimenduak, hau da, burutapenak eta hotzikarak agertzea bilatzen du honako erreportajeak. Juan Vallejo, Pou anaiak eta Juanito Oiarzabal gasteiztar unibertsalen ingurura gerturatu gara bihotza eta buruko kontu hauek gertuagotik ezagutzeko.

MENDIZALEAK eta SENDIA, SENTIMENDUAK eta SENTSAZIOAK

juanito oiarzabal & sendia

Cho Oyu laugarren aldiz igo izanik, Juanitok hogeitazortzimilako zenbatzen ditu (munduko marka) egun bere mendizale ibilbidean. Marka ikaragarria izaki, gasteiztarrek hurrengo helburua dauka dagoeneko buruan. Urte amaiera bitarteko hilabeteak hitzaldiak eskaintzen emango baditu ere, datorren urteko plana egina dauka Oiarzabalek. Libia eta Egipto arteko basamortua egingo du “Al filo de lo imposible” telebista saiorako eta ekainean K2, munduko bigarren mendi altuena eta estatistikoki arazo gehien duena, bigarrenegia dauka egitasmoen artean nagusi. “1.994. urtean bide berria egin genuen eta oso ondo ateratu zen dena, baina 47 urterekin egitea ez da gauza bera. Hortaz, mendi serioa oso denez ni baino indartsuagoak diren mendizaleez inguratu beharra daukat”.



JUANITO OIARZABAL

Juanitok onartzen du hainbeste urte gauza bera egiten egon ondoren ez zaiola hain gogorra egiten hilabete batzuek familia uztea, nahiz eta beti gogoan izan. “Dena den, duela urtebete lasaia joaten nintzen. Orain, aldiz, petatea egiten ari naizen bakoitzean Mikelek ulertzen du ez noala astebeterako, baizik eta egun askotarako eta hori barrura heltzen zait”, dio mendizaleak. Hala eta guztiz ere, honako hau nabarmentzen du Oiarzabalek: “Hemen nagoenean han egon nahi dut eta han nagoela, berri, hemen egon nahi nuke. Nire bizitza oso lotuta dago Himalayarekin eta mendiarekin eta oso ondo orekatzen dut nire bizitza pertsonala eta nire bizitza profesionala”. Bere azken erreferentzia honi lotuta Oiarzabalek dio pozik bueltatzen dela etxera, familiarekin, lagunekin eta hiriaz gozatzeko gogoarekin, oster, etxean hilabete luze pasatzen duenean mendiaren deia sentitzen hasten da.



ARACELI HERNANDEZ, emaztea


“Gure bizitza horrelakoa da. Bi edota hiru hilabete etxean egon eta badoa espedizio berri batera. Agian, hainbeste urte izan dira horrela niretzat ohikoagoa dela, eta gogorrena mendiak arrisku gehiago edo gutxiago izatean egon daiteke”, nabarmentzen du Araceli Hernandezek Juanitoren lanbidea eta bizimoduari dagokionez. Aracelik dioenez, Juanito etxean dagoenean ez dituzte egunak pasatzen atzerako zenbaketa bailitzan: “Badakizu joango dela eta izan daiteke elkarrekin gauden denbora horretan ohiko bikoteek bizi dezaketena baino intentsoagoa izatea. Batzuetan, alegia, ez da kantitatea baizik eta kalitatea”. Aracelik badaki zein den euren familiaren bizimodua eta bere ustetan, “oso ondo ezagutzen duzunean pertsona bat badakizu zer gustatzen zaion eta gustuko duena egiteaz goza dadin nahi duzu berarentzat, zoriontsu izan dadila”.

Araceli, besteak beste, Mont Blanc-era igo da Juanitorekin. Baina egun lau urtetako Mikel txikia egonik itxaron beharko dute familiarekin beste trekking berri bat egin arte. Mikelek aitak egiten duena ez du atsegin, bai aldiz mendia: “Mendira igotzea gustatzen zait baina ez eskalatzea”.

artxibo



Makalu, Yosemite, Everest, Annapurna eta Sishaparna dira **Juan Vallejo** gailendutako mendi batzuk, besteak beste. Hogeita hamabi urteko gasteiztarra egun "Izotzan harrapatuta" liburuan biltzen den Shackleton mendizalearen ibilbide bera errepikatzen saiatzen ari da. "Al filo de lo imposible" telebista saiorako grabatzen ari dela, abentura Malvina Irletatik Georgiatarra abiatzen da, ondoren Georgia alde batetik bestera eskiekin gurutzatzeko asmoarekin. "Izotzan harrapatuta gelditzen ez badira behintzat", dio bere amak.



ANGEL ROSEN,
mendizalea eta aita

"Joaten denean batetik ikusmina eta aldi berean ezegonkortasun sentrazioa daukat. Bai arlo fisikoan, bai arlo pertsonalean. Beti delako garrantzitsua aurreikusi duzuna lortzea, bestela beti geratzen da frustrazio sentimendua", dio Angelek. Batetik aita, bestetik mendizalea ere izan da Angel Rosen, eta horrela ikusten du bere semea: "Juanek nik baino askoz ere esperientzia gehiago dauka eta nik egin dezakedan bakarra da galdetzea jakinmina dela eta. Askoz jota trekking egitera lagundu dezaket".

Angel Rosenek gogoratzen du 1.980. urtean "Tximist euskal espedizioa" lehendabiziz Everestera heldu zenean. "Oso urrun dago memento hori baina poztasunarekin gogoratzen dut; nahiz eta nik tontorra egin ez espedizioak lortu zuen eta orduan, garai horietan, taldeak egin bazuen guztiok egin genuela generitzon. Egun ez da horrela, egun komertzialagoak dira egiten diren espedizioak eta elkartasun hori ez da ematen, asko aldatu da. Lehen espedizio nazionalak ziren, bandera eta guzti. Baina orain hori dena aldatu da. Lehen euskaldunak, frantsesak edo dena delakoak heltzen ziren tontorrera eta izenak ez ziren aipatzen".

IRVSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA



Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**

& sendia

AURORI LLANOS eta ANA ANDRADE, ama eta emaztea, hurrenez hurren



Aurori Llanos, Angel Rosen, Mikel eta Maria; Juan Vallejoren gurasoak eta anaia-arrebak



Ana, emaztea eta Ainhoa, alaba

Aurori Llanosek bi egoera ezberdinetan pairatu behar izan du maite duen senide baten mendira luzerako joatea. Izan ere, Aurori Angel Rosenen emaztea da, baita Juan Vallejoren ama ere. Berak aipatzen duenez, "Angel joaten zeneko garaietatik gauzak asko aldatu dira, ni egun Juanekin harremanetan jar naiteke telefonoz eta informatuago egon. Lehen, aldiz, ez. Gogoratzen dut lehendabiziko irteeran, Angel Everestara joan zenekoan, ez zeukatela ez maparik ez ezer ere,... eta gero han ez zegoen inongo aukerarik kontaktuan jartzeko. Berriak hilabeteko atzerapenarekin heltzen ziren, zuk idazten zenion gutun bat eta agian bueltatzen zizuten, zeren heldu orduko bera dagoeneko etxean zegoen. Beraz, iraganak eta orainak ez daukate elkarren arteko zerikusirik".

Anak, Juanen emazteak dió, eskuetan Ainhoa, 10 hilabeteko alaba txikia duela: "Gainera, Gasteizen dagoenean ere ez du denbora asko etxean pasatzen, eskalatzen edo entrenatzen baitago,

Pirinioetara doala etab... Niri gogorra egiten zitzaidan hasieran. Bakarrik zaude, denbora asko da... eta denbora pasa ahala ez zara ohitzen". Aurorik dioenez, "denborarekin paperak trukatu dira eta Juanek egiten duena gustuko badu ere, ez zaio samur egiten hemen daukana uztea". Behin proposaturiko tontorra edo helburua lortzen duenean familia, nola ez, izugarri pozten da baina oraindik jaistea ere falta dela ez dute ahazten, eta etxean egon arte nerbioak ez dira lasaitzen.

Aurori eta Ana ere badira mendizaleak, "nik nire neurrira egiten nuen, lau seme-alabak ere zaindu behar nituen...", ekartzen du gogora Aurorik. Ana, aldiz, Juanekin izan da Mont Blanc-en, Alpeetan eta espedizio bat edo besteren *campo basera* ere joan izan da. "Gustatuko ez balitzaigu izugarria litzateke..., ni behintzat ez nengoke gizon honekin", dio Aurorik bere senarragatik. Anak, berriz, "eurekin joatea gustatuko litzaidake", onartzen du.

sartu
Zure arropa eta oinetakoa!
www.sartuenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

ESERAL
TABERNA
Fundatzen, eztabaitik osatzen
JANTOKI
BEGETARIANO
SAN FRANCISCO KASBERKOAKEN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

BEIRATE
ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ
MIKEL DELIKA

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

javier baraiazarra

Naranjo de Bulnes-etik Gasteiza duela gutxi heldu berriak Pou anaiek egitasmo berri bati hasiera eman diote lehengo urratsa arrakastatsua guztiz izanik. "Oso pozik gaude egindako azken bi egitasmoak ("El niño" bidea, Yosemite, eta Zumbeltz, Asturias) maila handikoak zirelako eta pronostiko guztien gainetik lortu dugulako" -aipatzen dute Pou Anaiek-. Gure maila gaindu dugu aurren eta orain arte eginiko urterik onena izan da hau". Hurrengo abialekua zein eta noiz izango den oraindik zehaztu ez badute ere, "Zazpi kontinente, zazpi pareta" egitasmoarekin jarraituko dute datorren urtean mendizale gazte bi hauek.



javier baraiazarra

IKER eta ENEKO POU

"Normalean etxetik alde egiten dudanean oso motibatuta noa proiektuarekin, nahiz eta urrutze sentimendu hori nirekin ere eraman. Faltan botatzen ditut etxeok, baina egunak pasa ahala ohitzen noa. Agian lehenengo astea da gogorrera, baina gero proiektuan zentratzen zara eta listo. Behin lortuta etxera bueltatu nahi duzu lehenbailehen eta lagunekin eta familiarekin egon", azaltzen du Iker Pou anaia gazteenak.

"Hegazkinean zauden unean oso pozik zaude, horrek egitasmoa aurrera atera duzula esan nahi duelako", dio Enekok. Alde egin baino lehenagoko egunak oso mugituak direla dio Enekok eta hortaz, bidean daudenean lasaitasuna sentitzea onartzen du gasteiztarrek. "Dena den, ni oso nostalgikoa naizen heinean denborak aurrera egin ahala neska, familia, lagunak... faltan botatzen ditut. Baina argi dago etxean gelditzen direnei askoz ere gogorragoa egiten zaiela memento hori".



artxibo

ITZIAR AZKARRAGA, ama

Euren ama Itziar Azkarragak gurasoen ikuspegia ematen du: "Nonbaitera doazenean eromena da. Trastu guztiak prestatu behar dira, azken orduko gauzak, hau ahaztu zait, bestea ekarri, motxilak... eta guk ahal dugun neurrian laguntzen diegu". Pou anaien amak semeak alde egin baino lehen gehiegi ez jakitea nahiago du: "Batez ere proiektu honekin, '7 kontinente, 7 pareta'. Unean bizitzea nahiago dugu eta ez burutik ezin kendu bizi. Nahiz eta estuasun hori beti daukagun gurasook, pentsatzen dut beste hainbeste gurasok ere euren seme-alabek asteburuetan kotxea hartzen duteneko antzeko sentsazioa izango dela". Oraingo honetan bezala proiektua lortzen badute poztasunez hartzen da Pouen etxean, baita lortzen ez badute ere, "nahiz eta pena izan, gu pozik gaude osasuntsu eta salbu daudelako eta hori delako garrantzizkoena".

gurasoak



EMAIZE SEXOLOGIA ZENTROA

Errege Atea 3, 4. bulegoa
Tel.: 945-26.58.96

01001 Vitoria-Gasteiz
e-maila: emaize@euskalnet.net

sexualitatea

EMAIZE

AUTOEROTISMOA

(edo MASTURBAZIOA)

Gaur egun jada masturbazioak inolako gaitz fisikorik edo mentalik eragiten ez duela nahiko zabaldua dago. Inork ez du zalantzan jartzen gaixotasunik sortzen ez duela (irakasleak, aita edo ama kontserbadoreak ez dituzte horrelakoak esaten: "itsu geldituko zara", "bizkarrezur-muina lehortuko zaizu" edo "zoratu egingo zara"). Gure gorputza ezagutzeko ona izan daitekeela esaten digute orain, zer atsegin dugun jakiteko, urduri gaudenean lasaitzeko edo gure bikotearekin dugun harremana hobetzeko, zer atsegin dugun edo zer ez hobeto azal baitiezaiokegu. Azken batean, gauza askotarako balio duela eta praktikatzeko nahikoa arrazoi badugula.

Hala ere, badirudi adin jakin bat izan arte egokia izateaz gain, masturbatzea, plazerra sentitzeko eta gure gorputza ezagutzeko bakarkako moduak bilatzea, derrigorrezkoa ere badela. Badirudi zenbat eta gehiago egin (edo zenbat eta gehiago esan), orduan eta hobe dela.

Hala ere, gai honek oraindik kezkatu egiten gaitu. Zergatik? Batzuetan gaizki jokatzen dugula pentsatzen dugulako. Bikotea dugunean, jada helduak garenean, askotan egiten dugunean... Bikotea dugunean masturbatzea beharrezkoa izan beharko ez litzatekeela pentsatzen dugu eta adinean aurrera goazenean eta gure hormonak horren nahastuta ez daudenean, gure esztazioa kontrolatu egin beharko genukeela eta beste pertsona batzuekin ditugun harremanetara zuzendu beharko genukeela pentsa dezakegu. Edo gehiegitan masturbatzen garela pentsa dezakegu, horren neska lagun edo mutil lagun jatorra izanda eta berarekin ohean horren ondo pasatuta normala ez dela pentsa dezakegu, sexu-adikzioa izan dezakegula.

Arazoa hauxe da: masturbazioari buruzko garai bateko aurreiritziak gainditu nahian, helburuak jarri dizkiogu. Eta horiek betetzen ez direnean kezkatu egiten gara. Gure gorputzak kitzikapen ugari sentitzeko gaitasuna duela esan beharko genuke, kitzikapen atseginak eta desatseginak, eta horietatik atsegin ditugunak bilatzen saiatzen garela. Pertsona guztiei ezin zaizkie gauza berberak gustatu eta, horregatik, ezin diogu inori esan nola, noiz edo zergatik ukitu behar duen bere gorputza.

Baina esaten ari naizen hau gizonezkoen masturbazioarekin lotuta pentsatzen edo esaten du jendeak. Izan ere, oraindik orain gizonen eta emakumeen sexualitatea ez bait dira berdin ikusten: emakumeen



Bodies erakusketa. Miguel Angel Muñoz Pellicer.

masturbazioa tabu da oraindik. Neskek ez dugu gure plazerrari buruz hitz egiten, pertsona batenganako edo beste batenganako sentitzen dugun desioari buruz (batez ere erakartzen gaituena beste emakume bat baldin bada). Emakume askok eta askok, edozein adinetakoak izanda ere, ez dituzte beren genitalak ezagutzen. Mutilek, emakume horiekin izaten dituzten lehenengo harremanetan ezagutzeko moduan! Ba al dakizkizu zure kanpoaldeko genitalen izenak? Ez motxin, ez bagina, ez "chocho", eta ez... Beste edozein izen jartzen diogu, benetakoa izan ezik: alua. Benetako izena ez ezagutzeaz gain, dituen zatiak, ezaugarriak eta funtzioak ere ez ditugu ezagutzen.

Baina, nola masturbatzen gara neskak? Emakume guztiak ez gara berdinak eta, horregatik, ez gara guztiak berdin masturbatzen. Gainera, ez daukagu zertan guztiak masturbatu. Gaur egun mutilek baginatik zerbait sartuz masturbatzen garela imajinatzen dute (oraingoan "bagina" terminoa ondo erabili dugu), hori plazerraren muina balitz bezala. Film pornoetan hori ageri da, autoerotismorako zakila ordezkatzan duen zerbait

behar eta bilatuko bagenu bezala.

Bada, mutilok, hori ez da horrela; gure aluan (baginaren sarreratik berezia) klitoria dago: nerbio-bukaera ugariz osatuta dago, zakilaren glandea bezalaxe. Klitoriaren funtzio bakarra sentipen sakonak sentiaraztea da (plazerra, baina baita mina ere, kitzikatzeko moduaren arabera). Beraz, sentikortasun handiko gunea da, ziurrenik gorputz osoko sentikorrena, eta neska askok, masturbatzerakoan, puntu hori ferekatzen dute.

Mutil guztiak ere ez dira modu berean masturbatzen, nahiz eta hori pentsatu. Izan ere, mutilen nahiz nesken gorputzetan, genitalen sentikortasuna handia den arren, badira sentikorrek diren beste gune batzuk ere: gorputz osoak erantzun dezake ferekatzen dugunean eta plazerra eskain diezaguke. Garrantzitsuenak, neska edo mutila izan, ez da zenbat aldiz masturbatzen zaren, baizik eta masturbazioaren kalitatea, masturbatzeko modu desberdinak, ongi sentiaraziz.

Plazerra senti dezagun gure gorputza ukitzea ondo sentitzeko modu bat izan daiteke, baina ez da derrigorrezkoa edo bakarra, eta ez dugu modu jakin batean egin behar. Pertsona bakoitzari dagokio zer atsegin duen eta zer ez aurkitzea eta, hori jakinda, zer egin nahi duen eta zer ez erabakitzea. Kontu hauetan ez dago araurik eta, beraz, zure esku dago zure gorputzak transmititzen dizkizun sentipenak zein diren aurkitzea.

ZAPATENEO



**Iritzia sortaraztea.
Helburu hori hartuta,
urtebete lanean darama
Gasteizko Zapateneo
Kultur Elkarteak.
Dagoeneko, ikuspuntu
autonomo eta
antiautoritariotik
argitaratutako guztia
aurkitzeko toki bilakatu
da Zapateneo, eta azken
urtebetean gero eta
gasteiztar gehiago
hurbildu da bertara,
betikoari ZAPing egiteko.**

2002ko urrian jarri zen abian Zapateneo proiektua, baina ideia ia urtebete lehenago mamitzen hasi zen. Gasteizko Zuloa eta Herrikoia liburutunden itxieraz geroztik, hirian "hutsune" bat zegoela somatu zuten hainbat elkartetako kideek. Gabezia hori bete nahian, hasiera batean Komite Internazionalistak, Gasteizko Talde Antimilitarista eta BIP Brigadas Internacionales de Paz elkarteek Zapatar kaleko 95 zenbakian erabiltzen zuten lokalari bestelako etekina ateratzea erabaki zuten. Halaxe jaio zen Zapateneo egitasmoa.

Hiru zutabe dira Zapateneoko proiektuaren oinarri: Batetik, liburuak, txostenak, liburuak, diskoak eta bestelako material alternatiboak saltzeko denda da; bestetik, Gasteizko taldeen disko eta liburuaren argitaratzaile lanak egiten ditu; eta azkenik, kolektiboen materiala Euskal Herrian eta Espainian banatzen du.

Hiru oinarri horiek uztartuta, helburu bat erdietsi nahi dute Zapateneoek, Mikel Lacalle



Edu Zelaia

kideak azaltzen digunez: "Ezarri nahi duguten pentsamendu bakarraren kontra jotzea". Eta helburu horretara zuzenduta dago Zapateneon aurki daitekeen material guztia, bai eta antolatzen dituzten ekitaldiak ere. Finean, denetarik egiten saiatzen direla adierazi digu Edu Zelaia: "Nik uste dut hemen dagoen ezerk gu ez gaituela molestatzen, ez gara anarkoak, ez marxistak... baditugu gure sinpatiak, bai kolektibo bezala bai norbanako gisa, baina ez dugu alde batekoak izan nahi; pentsamendu kritikoa sortarazten ahal duen edozerk du tokia hemen, igual zaigu nola, dela artearen bidez, literaturaren bidez, musikaren bidez..."

Garagardotegia

Asteartetik,
Igandera
IREKITA

La Blanca

- * Oilasko erreak
- * Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz



LA RIOJANA jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 Tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX

**PITILIN
GORRI**



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

URTEBETE BETIKOARI ZAPing EGITEN

ZAP
ATENEO



Mikel Lacalle

Aniztasuna, maila guztietan

Ildo horretan, azken urtebetean aurkezpen, eztabaida, mahainguru eta hitzaldi franko antolatu ditu Zapateneok. Ekitaldi bakoitzera pertsona oso desberdinak joan direla nabarmentzen dute Zelaietak eta Lacallek, eta oso interesgarri deritzote publikoa anitza izateari.

Pluraltasun horrek, gainera, Zapateneoko bestelako jarduera batzuetan ere isla dauka. Hala, argitaratu dituzten produktuak denetariakoak izan dira, denetariakoak eta aldi berean oso desberdinak: Gasteizko Gaztetxearen CDA kaleratu dute, eta aldi berean flamenko modernoa egiten duen Gasteizko talde baten diskoa ere. Desberdinak baina oinarri komunarekin: Gasteizko taldeak eta autoprodukzioak direla.

Zaplagunak edo Zapateneoko kideen artean ere aniztasuna da nagusi, eta hori "oso pozgarria" dela iritziz dio Zelaietak. "Egitasmoa irekia da, nahi duen oro etor daiteke...", diosku. Eta

gaineratzen du: "Baina ez dadila etorri inor eroatera, lehenbizi etor dadila hemen dagoen materialarekin galtzera, denborarekin, ikus dezala zer dagoen, saltseatu dezala..."

Egunerokotasuna, euskaraz

Pluraltasunaz gain, bada Zapateneok duen beste ezaugarri bat: kide guztiak arabarrak eta euskaldunak direla. Hala izatea kasualitate hutsa izan da, baina Zapateneoko lagunak oso pozik daude, besteak beste, egitasmoaren funtzionamendua euskaraz egitea ahalbidetzen dielako.

Antolatzeko moduari dagokionez, azpimarratu behar da liburutegia "elkartze liburutegia" ere badela, eta hileko kuota bat ordaintzen duten bazkideak dituztela. Bazkideek aukera dute kuota horren bitartez bertako materiala etxera eramateko, eta aldi berean korreo elektronikoz Zaplaburrak izeneko informazioa jasotzeko ere.

Hedapen lana

Eta etorkizunari begira zer? Zapateneo jaio zenetik finkatutako helburuak bete badituzte ere, elkarte gehiago zabaldu, ezagunagoak egin eta jende gehiagora heltzea da euren nahia. "Jendea guregana hurbiltzea nahi dugu, modu horretan ere guk proposamenak egin ditzagun", dio Zelaietak.

Jendeak proposamen "lizunak" egiteko irrikitan dira Zapateneoko lagunak. "Bai maila pertsonalean, bai kolektibo gisa jendeak proposamen lizunak egitea nahi dugu, diskoak ateratzeko, banatzeko...", diosku Zelaietak. Izan ere, Zapateneo jendeak elkar ezagutzeko gunea izatea da euren asmoa, eta horren alde lanean segituko dute hemendik aurrera ere. Animatzen al zarete eurekin batera ZAPing egitera?

ZAPateneo kultur elkartea...
material kritikoen banatzailea, leku alternati-
boa, topagunea, elkartze liburutegia...
iritzia sortaraziz.

bar · restaurante ·
albeniz

Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
"ez dago
pintxorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUJA (ARABA) • Tfno: 945 430 073

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30


RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59

ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!
Jatetxea - Taberna
"EL CLARETE"
Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

Lehen istorioaren amaiera eta berri baten hasiera

Urriko alean argitaratu **Karmele Jaioren** "Jainkoarenak egiten" istorioa abenduan kaleratu **Lourdes Oñederraren** "Neska haren iribarrea" izenburuko hasieraren AMAIERA izan da. Beraz, kateak jarraitzen du, baina oraingoan Luiandoko **Isa Díaz Lopez** istorio berri baten LEHEN ATALarekin datorkigu. Hona hemen:



ISA DIAZ

DEPENDE (I. atala)

- Bizitza honetan dana da erlatiboa. Inongo kontuetan ezer ez da ezezko borobila ez baiezko borobila, gauzak ez dira kolore bakar batekoak, holan besterik gabe: baltza ala zuria, ez, nik uste beti dagoela "depende" hortik zintzilik, "depende" bat edo hamaika, seguraski errezago topatuko duzu hamaika "depende" "depende" bakarra baino; eta bizitzaren arlo guztietan gainera, ziur, are gehiago esango nuke nik, bizitzan hartu behar dituzun erabaki guzti-guztietan, eh! hori bai, salbuespenak salbuespen, noski!

- Orduan, zure teoriaren arabera, zalantzaren atea beti zabalik egonda, ezingo genuke inoiz aurrerapausorik eman, ezin parte hartu ezertan alde edo kontra, ezin jarrerarik asumitu edo defendatu edo zer dakit nik, dana erlatiboa bada, ditzosozko "erlatibotasun" hori beti egongo litzateke gure buru gainean Damoklesen Ezpataren antzera, ez atzera ez aurrera joaten utzi gabe, ez?!, ez da hola?!

- Ba ez, ez, justu kontrakoa aizu! Nik ere uste dut geure eguneroko bizitzan ia dena erlatiboa dela; paradoxa badirudi ere, erlatibotasunak sortzen duen zalantza hori da, hain zuzen ere, erosotasunaren eremutik gure ipurdiak kanporatzen dituen, ezta?

- Ei, ei, ei!!! Ixooo, txo! Aldatu txipa! Utzi alde batera errollu hori, erlatiboa gora erlatiboa behera. Zertarako bildu gara hemen? Eh? Ea ba! Zentra gaitezen esku artean daukagun proiektuan, mesedez, bestela ni banoa.

- Ez, ez, hau interesgarria da, bai,

bai, bada, itxoin apurtxu bat, ea nik ulertzen dudun, demagun...

Baina Josu seriotan ari zen. Zortzi hilabete zeramatzen oso gogor jo ta ke lanean, egunero entseiuak egiten, letrak biltzen, asmatzen, borobiltzen, beste autoreen kanten bertsio berriak egiten euren estilora moldatzen, orain taldekide batek idatziriko poema bat musikatzen, orain beste kide batek ekarritako lagun batenaz baliatzen, azken finean kanta berriak sortzen saiatzen, eta honela, grabeak gora, erritmo hori biziago, nota hau errepikatu, bukaera in crescendo baietz, mila moldaketa eta mila aldaketa, eta beste horrenbeste froga eta saio eginez, aurrera zihoan, ia obsesio bihurtu den azken hilabeteotan, proiektua gauzatzearen asmoa.

Asmo horrexekin eta ez besterekin ailegatu zen Josu geratutako orduan puntu-puntu paper tolestu bat eskuan zuela. Berez urduri bazegoen, gero eta urduriago ari zen jartzen lagunak elkarizketaren nondik norakoa ikusita. Berauk sortutako kanta berri batentzako hitza zekarren. Paper tolestu hura denon aurrean zabaldu eta erdi-kantatzeko erdi-irakurtzeko prest zegoen harik eta besteen solasgaia desbiraiezina zela antzeman arte.

Gauzak honela, papera poltsikoan gorde eta ezer esan gabe ospa egitea erabaki zuen.

Bien bitartean "demagun" horrek ekarri zuen betiko moduko eztabaida luze, sakon, astun, eta -hain gustuko zuten- (guztiok ez, bistan denez) debate bukaezinaren giltza.

Sei kikara eta hautsontzi txiki bat erdian, tabako paketeak, erretzeko papera eta txiskero zenbait. Bafle zaharraren ondoan bost txamarra bata bestearen gainean botata eta txakur handikote ta iletsu bat patxada ederrean mahai azpiko oinarrean etzanda, lau lagun solasaldi mamitsuan buru-belarri sartuak eta Maddi, mutu ta lanean. Bere baitan pentsetan txirria kasik pizteko prest duela:

<<GOSEA erlatiboa izango da? Eta MISERIA? GERRA erlatiboa al da? Eta SUFRIMENDUA? Eta INJUSTIZIA ere erlatiboa da?>>

Lehenengo porruak bere bira amaiturik besteren batek edo egindakoek errelebo hartu diote; mahaitxo gainean orain hainbat garagardo, Maddiren galderak, hautsontzia errekin ez gainezka eta Afrika guztion ahotan. Zea Mays bitartean ari da taberna barruko gaua giroten.

- Ze, klaro! Afrika aipatzen badugu, akabo! Afrikako gosea, miseria, gerra, sufrimendua eta injustizia ez dira gauza erlatiboa, errealdade krudela baizik, denok dakigu hori, zeinek ukatuko luke hori? Baina hau ez da eztabaidaren gakoa, eztabaidaren funtsa bestelakoa da.

- Ea ba, nik uste dut debatearen jomugatik hara, oso urrutira eraman duzula gaia, Maddi. Gu geure eguneroko bizitzaz ari gara eta ez nazioarteko mailan ematen diren errealdade ezberdin honetaz zein hartaz; eta zorionez edo tamalez Afrikak ez du lekuri betetzen geure eguneroko bizitzan, ezta?

- Ba bai, egia da, ni ados nago erabat, eta hobeto ulertzeko demagun ...

Baina Maddik ez zion amaitzen utzi:

- Aizue! Nik ez dut Afrika aipatu.

© isa diaz & geu aldizkaria

ARABARRAK: EUSKALDUNAK, NAFARRAK

ERLANTZ URTASUN, historiagilea. Nabarralde.

Zazpiak bat, seiak bat,... Lurraldetasunaren inguruko hausnarketak ez dira arrotzak gure artean, eta horren azaltzeko euskal nazio kontzientziaren ahulezia aipatu da zenbaitetan. Euskaraz dakiena euskalduna dela erraitea ukazina da, baina Euskal Herria zer den zehaztea konplexuagoa dela dirudi. Axular idazleak ere, XVII. mende korapilatsuan, euskaldunen artean bereizketak burutu zituen. Bere irudiko, lagun batzuk "Euskal Herria" zelakoan bizi ziren eta bertze batzuk eremu hartatik kanpo. Hots, duela hirurehun urte baino gehiago, Euskal Herria hagitz ongi ezagutzen zuen urdazubiarrak lurraldetasuna eta hizkuntz eremua gauza bera ez zirela karrikaratu zuen.

Adibidez, egungo nafar foru erkidego osoa nahiz Nafarroa Beherea "Euskal Herria" deiturikoan kokatu zituen, Ebroz bertzaldetik Aturriraino, baina euskaraz bizi zen Biarno eta Goi Aragoiko zenbait herri Euskal Herriatik at irudikatu zuen. Hortaz, Axularren ustez ibar batean, etxe multzo batean euskaraz mintzatzea eta "Euskal Herria" bizitzea ez zen gauza bera. Zer hartzen zuen kontuan, beraz, herri bat balizko "Euskal Herria" horren baitan zela adierazteko? Egiturak, zuzenbidea, ohiturak, historia?

Auzi hau, erran nahi baita euskal nortasunaren inguruko ikerketa ildo hau, irakurleak nahi adina sakontzen ahal du. Eta are gehiago, Axularren hitzen erranahia ere ez baitago horren garbi. Bertze adibideren bat eskain dezagun. Erdi Aroan hainbat kanpotarrek idatzi zuten Iparraldeko lagunak

"baskoak" zirela eta Hegoaldeko lagunei, berriz, "nafarrak" deitu zieten. Baina Hegoaldea eta Nafarroa ez ziren gauza bera, ala bai?

Dirudienez, euskaldun independenteak zirenei "nafarrak" deitzen zieten eta Europako bertze aberrien menpe bizi ziren euskaldunei, berriz, "baskoak". Horregatik, Gaztelak mendebaldeko nafarrak konkistatu ondoren, hauek "nafar" izena galdu eta "basko" bihurtu ziren, lapurtar eta zuberotarren gisa. Baigorri, Garazi edota Donapaleu alderdiko biztanleek Iruñeko egiturarekin bat egin zutelarik, berriz, "basko" izatetik "nafar" izaterat igaro ziren.

Nortzuk ziren Nafarroatik kanpo bizi ziren nafarrak? Erran bezala, hizkuntza, zuzenbidea, egitura politikoa eta bertze aipatu behar dira. Gure aldetik, gogoeta honi laguntzeko datu batzuk eskainiko ditugu, hori ez bertzerik.

Antza denez, duela mila urte Burgos, Errioxa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskaldunak, nolabait erraiteko, mendebaldeko nafarrak ziren. Izan ere, Gregorio Monreal irakasleak dioenez: "X. mendeko lehen berrien arabera eta XII. mendeko amaiera arte, Bizkaia nafar esparru politikoan ongi sustraituta azaltzen da". Eta Francisco Salinas ikerlariaren erranetan, "Aiarako Zuzenbidea (Arabako eskualdea, Bizkaia eta Burgosko mugetan), Nafar Zuzenbidearen baitan da eta hau da bi Zuzenbideen artean egiten ahal den alderaketarik onena"; Gaztelako zuzenbidearekin alderatuz hain ezberdinak zirenak, hain zuzen.

Ildo beretik, XII. mendean, euskaldunak batere maite ez zituen Aymeric Picaud

frantses erromes bidaiariak idatzi zuenez, "basati hauen lurralde batzuetan, Bizkaia eta Araban batik-bat, nafarrek kanpaia jotzen dute, zoofilia ere praktikatzan dute [...] Nafarren hizkuntza (hots, euskara) zakurren zaunka bezalakoa da". Hau da, testu honetako euskal ohiturez landa, Erdi Aroko egileak Bizkaia eta Araba herrialdeko biztanleak nafartzat hartu zituela ageri da.

Batzuk arabarrak ziren, bertze batzuk errioxarrak edota baztandarrak, baina denak nafarrak ziren. Hor dago kokxa. Nazioa Nafarroa zen, bertzeak ez ziren nazioak, lurraldetasun finkorik ez zuten nahikoa eskualde aldakorrek baizik...

Hondarrean, Londonen den British Museum deiturikoan 1190eko agiri bat dago: "Division of kingdoms of Navarre and Spain". Bertan dioenez, "nafar erregearen lurralde Oartzundik Castro Urdiales arte hedatzen da eta hortik mendebalderantz Gaztelako erregearen lurra hasten da". XVIII. mendea arte Kantabrian den Castro Urdiales herriak, behin eta berriz, Bizkaian sartzea eskatu zuen.

Nafarroa eta Euskal Herria

Ezaguna denez, Erdi Aroko mende luzetan egungo Euskal Herriko herrialde gehienak Nafarroa deitzen zen eta nazioartean guziz onarturik zegoen estatu independentearen baitan zeuden antolaturik. Esaldi batez testuingurua bere osotasunean uler dezagun, arabarren hiriburua Iruñea zen, eta Gasteizko forua egungo Iruñeko Alde

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:

GORA EUSKADI
ASKATUTA!



gasteiztarren erresistentzia Nafarroaren alde eta Gaztelak biziki ongi ordaindu zuen jaunttoen traizioa.

Tomas Urzainki historialari iruínshemeak sinatu zuenez, *"es interesante recordar, ya desde ahora, que todos los vascos somos navarros y todos los navarros somos vascos. Los conquistados no podían llamarse navarros dentro de Castilla porque Navarra era un país europeo diferente. Es decir, los nombres vasco o navarro*

no tienen interpretación territorial sino temporal".

Laburbilduz, Pedro Labrit (1495-1567), Bernat Etxepare, Oihenart edota "Asociación Euskara de Navarra" (1878-1883) taldearen idazlanek iradokiten dutenez, hau omen da Euskal Herriaren garapen historikoa ulertzeko gakoa: *"la nación política navarra y la nación cultural Euskal Herria, pues ambas, nación política y nación cultural, Navarra y Euskal Herria, son dos caras de la misma moneda"*.

Ezin baitugu ahortu horrelako bikoizketak arruntak direla: euskaldun eta nafarra, galiar eta frantziarra, lusitaniar eta portugaldarra, germaniar eta alemaniarra, magiar eta hungariarra,... Izan ere, "La Navarra Marítima" liburu ospetsuan parte hartu zuen Juan Maria Olaizolak ohartarazi zuelarik, *"somos navarros, yo soy navarro, nacido en Irun"*.

Gaztelako inperialismoa Lapurdin

XII. mendearen amaieran Gaztelak nafar anitz menperatu zuen, hain zuzen ere mendebaldean kokaturik dauden hainbat

lurralde armen bidez konkistatu baitzuen. Ezaguna denez, XVI. mendearen lehen erdi aldean Nafarroa Garaia osoaren defentsa desegin eta Gaztelako armadak Iruñea bera irentsi zuen, prozesu kolonizatzailea bizkortuz.

Aipaturiko bi une historiko horien artean, XII eta XVI. mendeak, Gaztelako inperialismoa urratsez urrats sendotu zen, ia etenik gabe. Edonola ere, 1200. urtearen inguruan une erabakiorra dagoela erraiten ahal dugu, urte hartan oraindik nafarrak ziren Durangaldea, Gipuzkoa eta Araba gerra luze odoltsuan konkistatu zutelakotz. Adibide gisa, Gasteizek ia urtebetez eutsi zion.

Ezezagunagoa dena, beharbada, Lapurdin gertaturikoa da. Izan ere, Gaztelako ejerzito inbasorearendako Bidasoa ez baitzen muga. Gipuzkoa menperatu eta berehala, 1205. urtean, Gaztelako soldaduak Lapurdin sartu ziren. Lehenago Gaztelako diruak Lapurdiko hainbat handiki, jauntto eta apaiz garrantzitsu erosi zuen, Akize (Dax) hiriko apezpikua kasu. Baionako jendeak, halere, aitzin egin eta inbasoreek hiriri su eman bazioten ere, ez zuten konkistatu. Porrota militar hau jaso ondoren, Gaztelako erregeak Lapurdi ere menperatzeko ekimena baztertu behar izan zuen.

Hitz batez, Bidasoan beharrean, muga baino frontera dena Baionako iparraldean ez izanak kasualitate hutsa dirudi. Edota Arabar Errioxa egungo nafar foru erkidegokoa ez izatea, eskualde nafar hori gaztelar armadak XV. mendearen amaieran inbaditu baitzuen, hau da, Iruñea konkistatu baino urte guti lehenago.

Historia Atlasetan islatzen diren mugak zalantzatan, ohiko lurraldetasuna bera ere kolokan delarik, bada egun eta hemen, zintzoki, eskaintzen ahal dena: "Arabarrak: kulturalki euskaldunak, politikoki nafarrak". Gasteiz, nafar hiri eder bat.

© erlantz urtasun & geu aldizkaria

Argazki - Estudioa
Erramun
Heracleo Fournier, 23
Inoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Inoa: 26 19 91
01004

Dalvez
maketazioa
argitarazleak
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinu.euskalnet.net
diseinu

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

JABIER MUGURUZA, "ENEGARREN POSTALA"

Jabier Muguruzaren lana bi lerrotan laburbiltzea ez da erraza, ibilbide luze eta anitzeko artista baitugu iruindar hau. Oraingoan bere azken lana ezagutzeko aukera Geu Elkartearen ekimenez, Gauekoak-en laguntzaz, dakarkizuegu. **Jabier Muguruzak** bere azken diskoa, *"Enegarren postala"* izenekoa, aurkeztuko du **GASTEIZEN: AZAROAREN 8AN** izango da **ALDABE GIZARTE ETXEAN 22.00ETATIK** **AURRERA**; sarrera 4 eurotan da, haatik, **Geu-ko** bazkideek prezio berezian (2 €) eskuratu dezakete, **Geu Elkartera** azaroaren 5a baino lehen deituta, edo geuelkartea@grn.es helbidean eskaera eginez.



Gogoia ematen dizu kafe zurrutada dastatzeko. Terrazako zarabandan manta batean bildu eta ilargiari begi-keinua egiteko. Jabierren diskoak sosegua transmititzen du, eta irudiak, sentrazioak, usaiak, koloreak... Diskoan, halako batean, xehetasuna, unea, moldaketa eta akordea pausatu egiten dira, kikaratik zurrupatu, interpretatu eta sentitu egiten dira, eta gero, aurrera egiten dute kanta osoari bide emanaz. Tren elektriko baten antzera, non bagoi bakoitzak sorpresa bat dakarren.

"Enegarren postala"rekin etapa berri bat finkatu nahi du bere ibilbidean. Sorterritik abiatu zirkuitu eta esparru berriak bereganatu ondoren, orain ospe handiko nazioarteko banaketa duen Resistencia, World Music-eko disketxearekin kaleratu du lana, bide berriak ibiltzeko asmoz, eta, beste behin ere, musikak eta hizkuntzak mugarik ezagutzen ez dutela frogatu nahian.

Jabier Muguruza 1960an jaio zen Irunen, eta bost urte zituela musika munduan murgildu zen. Akordeoiarekin kontzertuak ematen hainbat urtez aritu ondoren, proiektu ezberdinetan parte hartzen hasi zen, bai rock bai kantautore munduan: Zarama, Imanol, Kortatu, Antton Valverde, Xabier Lete, Delirium Tremens...

1989an, bide pertsonalago bati ekinez, haurrentzako diskoa grabatu zuen, "Ja, Ja" izenekoa (IZ, 1989). 1990ean Les Mecaniciens pop taldea sortu zuen, modu horretara hiru lan kaleratu zituelarik: "Erabakia" (Elkar, 1990), "la Xoragarria" (Elkar, 1992) eta "Euskadi jende gutxi" (Esan Ozenki, 1993). Era berean, Joxe Ripiauren partaide ere izan zen, taldearen sorreratik 2000. urtean desegin zen arte.

Kantautore gisa 94an hasi zen lanean, orain arte honako diskook kaleratuak zituelarik: "Boza barruan" (Elkar 1994), "Kitarra bat nintzen" (Elkar 1996) "Aise" (Elkar 1997) "Fiordoan" (E. Ozenki 1999), "Hain guapa zaude" (Metak 2001) eta "Enegarren postala" (Resistencia 2003). Testuei dagokionez, Muguruzarenak berarenak dira batzuk, eta, gainerakoak, Iñaki Irazu, Joseba Sarrionandia, Bernardo Atxaga, J. Luis Padron, Inazio Mujika, Xabier Lete...

Literatur lanari dagokionez, 90. hamarkadaren




hasieran Emak Bakia literatura klubeko sortzaile izan zen, beste hainbat idazle eta musikarirekin batera: Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Jose Mari Iturralde, Maria Garikano eta Iñaki Irazu, besteak beste. Klubak Garziarena fanzinea eta liburu sorta argitaratu zituen. Ordudanik haur literaturako bost liburu publikatu ditu Muguruzak: "Sei lagun, sei sekretu" (Erein 1.994) "Gabon Guanito" (Erein 1.995) "Sebas leihotik begira" (Erein 2.001) "Zubi misteriotsuan" (Erein 2.001) eta "Amapola oporretan" (Baigorri, 2002); helduentzako beste bi: "Bizitza pusketak" (Erein 1.996) eta "Laura kanpoan da" (Erein 1.999). Modu berean, azken urteotan, artikulu andana idatzi ditu hainbat komunikabidetan. 97an "Itzultzaile bat Parisen" eta "Groenlandiako lezioa", errezitaldi musiko-literarioak ematen ibili zen, herriz herri, Bernardo Atxagarekin batera. 2001eko Frankfurteko liburu azokara ere joan zen, Euskal Editoreen Elkarteak gonbidaturik.

Jabier Muguruzak gaur egun musika eta literatura uztartuz jarraitzen du, bitartean proiektu desberdinetan kolaboratzeari uko egin gabe.


Naturaren isladak

Asma-belar edo estramonio (*Datura stramonium*).

Patata familiako Ameriketatik heldutako landare pozoitsua. Hipnotiko eta lasaigarria ere bai. Dena neurriaren arabera. Kontuz ibili!



CABO VERDE



- **NONDIK NORA:** Gasteiz-Cabo Verde.
 - **NOLA JOAN:** Hegazkinez, Bilbo-Lisboa-Sal / Bilbo-Lisboa-Praia (Udan bakarrik Madril-Sal).
 - **ZENBAT DENBORA:** 2 aste.
 - **NOIZ JOAN:** Udan bero dezente egin arren, bai abuztuan (Bahia das Gatas-en, S^a. Vicente-n) bai irailean (Sta. Maria-n, Sal-en), musika jaialdi interesgarriak daude.
- Urria eta azaroa dira hilabeterik aproposenak.
- **AURRETIK PRESTATU BEHARREKOAK:** Bisadoa Madrilén egiten da. Capitán Haya k/ 51-4, 8. atea, Madril-28020, telef.: 915702568 (Sal izeneko uhartean ere egin daiteke, aireportuan). Txertatzea ez da beharrezkoa.
 - **ARGIBIDEAK:** www.caboverde.com / www.cabonet.cv ("cabonews")
 - **HIZKUNTZA:** Creolle eta portugesa.
 - **TXANPONA:** "Escudo caboverdiano" a / euro 1 = 109, 39. Visa txartelak erabil daitezke hiri handietako banketxeetan eta hotel garestietan ere diru-papera lortzeko. Badaezpada euroak eraman.
 - **MOTXILAN ZER ERAMAN:** Arropa arina, lozakua, treking-botak, eguzki-krema, kapela, eltxoen aurkako produktuak, buzeorako betaurrekoak, ohiko botikina

(tratamendu berezi bat jarraituz gero, botikak eraman). Txamarraren bat ere bai, Novo mendira igo nahi baduzue (2.829 m.), Fogo izeneko irlan.

- **TOKIAREN DESKRIBAPENA:** irlak oraindik nahiko basatiak mantentzen dira: haran sakon eta berdeak, basamortuak eta hondartza luzeak, ur garbiak, sumendiak, dordokak, marrazoak... Ekialdeko irlak lauak eta lehorrak dira. Mendebaldekoak, menditsuak.
- **PLAN EREDU EGOKIA:** aukera anitz dago, 10 irla baitira. Gomendagarriena paisaia desberdinetako uharteak tartekatzea da, kontuan edukita ia bidaia guztiak hegazkinez egin beharko dituzuela eta garesti xamarrek direla. Nik egindako bidaian Sal, Boa Vista, S^a. Vicente eta Sto. Antao ezagutu nituen.
- **JAKIN BEHARREKOA:**
 - Cabo Verde-n "turismoa" egitea garestia da. Janaria ere ez da merkea, ez eta lo egitea ere. Halere, zenbait hondartza eta herritan kanpin-denda jar daiteke, baita haien etxeetan gela bat alokatu ere. Autostop ere egin daiteke (betiere gidariari diru pixkat utzizue), eta beraiek erabili ohi dituzten garraiabideekin bidaiatu ("prisa mata", noski).

- Irla artean eta hegazkinez egin behar dituzuen bidaiak, hobe duzue hemengo agentzia batean erreserbatzea.
- Itsasuntziei dagokienez, guztiz txintxo dabilen bakarra S^a Vicentetik Sto. Antaora doana da.
- Lehen gaua pasatzeko, nahiez gero, hotela erreserbatu, hegazkina gaez iristen baita.

• **BESTELAKOAK:**

- **Janariak:** arraina ugari, eta tipikoena, Kachupa, artoz egindako potajea.
- **Edariak:** Grogue, ronaren antzeko edaria, kontuz!; oraindik era tradizionalen ere egiten dute (Sto. Antaon).
- **Azokak:** Mindelo-koa (kutsu portugesa, koloniala), S^a Vicenten.
- **Musika:** edonon, asko gustatzen zaie dantza egitea. Musika mota desberdinak: MORNA (Cesaria Evora); COLADERA, ZUK (diskoteketan); FUNANA (tradizionala).
- **Jendea:** lasaiak eta atseginak (gozatu, hitz egin, denbora pasa...).
- **Ur kirolak** (buzeo, surf) irla "turistiko"etan. Mendia, senderismoa egiteko aukera ederra uharte berdeetan, gehienbat.

OLAGARRO ETA AZA MEDAILOI ERREA ENTSALADAN

4 LAGUNENTZAKO OSAGAIAK:

Medaloientzat

- Olagarro egosi tentakuluak
- Aza-orriak
- Hirugiharre xerra fina
- Parrilako 'aliñoa'
- Pil-pil saltsa ozpinarekin

Bestelakoak

- Kipula eta tomate xerrak
- Pipermorro errea tirtetan
- Piper berde frijitu eta zuritua tirtetan
- Alliolia
- Patata panadera karratuak
- piperrauts minarekin
- Osterzuri-orriak
- Perrexil binagreta



PRESTAKUNTZA

- Aza-orriak ur irakinetan galdarraztatu, eta gorde.
- Medaloiak prestatu: aza-orriak zabalduz, ondoren hirugiharrea gainean jarritz, eta gero honekin guztiarekin olagarro tentakulu pare bat bilduz; azkenik, zatitan moztu eta egurrezko brotxeta motz bana sartu. Entsalada prestatu aurretik parrilan erre.
- Kipulin eta tomate xerrak labean erre, gatz, berakatz birrindu eta olio apur baten laguntzaz.
- Patata panaderak ohizko moduan labean egin, eta epeldu ondoren karratu forma eman eta piperrauts min apur bat bota.

PLATERAREN ANTOLAKETA

- Patatak montatu plateraren alde batean.
- Borobil baten barruan, jarri lehenengo kipula eta tomate errea, ondoren piper gorri eta berdea, honen gainean osterzuri-orriak, hau guztia allioliarekin gozatu, eta honen gainean, olagarro medaloia pil-pilarekin igurtzita.
- Perrexil binagretarekin dotoretu platera.



Altzoak	▼	Arabako mendialdea	▼				Istu	▶		
Baso zaindari		Lokarria					Bilakatu			
▶		▼					Erregai mota	▶	▼	
							Toka, zaio			
Gogor	▶					Larrua	▶	▼		
Latza						Pl., barazki mota				
▶						▼				
							Areago	▶		
							Kontso-nantea			Bizkaieraz duk
Musika nota	▶		Eraso azkarra	▶			▼			500
Musika nota			Modu atzizkia							Atzizkia
▶		Infin., kokatu	▶	▼			Basapizti mota	▶		▼
		Bokala					Uranioa			
Portua, nasa	▶	▼			Pl., txori mota	▶	▼			

Hitz Gezidunak (LUMA)

*IRUDIA:
Gure protagonista Aramaiokoa da (1682-1759). Drama-idazlea eta poeta. Euskarazko lehen antzerki obra idazten du: "Gabonetako Ikuskizuna".

Soluzioa: 34. orrialdean

TINK



IRAKURLE KLUBA



Irakurle Kluba gurera bueltatu da aurten ere. Iazko arrakasta ikusita literatura atsegin duzuen zuei guztioi eskaintza berria dakarkizue aurten Geu Elkartearen ekintza honek. Urrian Harkaitz Canok eginiko aurkezpenak abian jarri du bigarrenaz Irakurle Kluba, "Nabokov-en salabardoa" izeneko bere hitzaldira hogeita hamar lagun inguru bildu zirela. Urriaren 29an, berriz, Xabier Montoiaren "Denboraren izerdia" liburua izan zen eztabaidagai. Oraingoan, azaroaren 26an, ohi bezala Hikaateneo-n arratsaldeko 20.00etatik aurrera, Robert Louis Stevenson-en "Altxor Uhartea"z abenturazko literatur klasikoan sakontzeko aukera izango duzue.

Conbidatuta zaudete Irakurle Klubera. Elkar ikusiko dugulakoan, laster arte!!

HARKAITZ CANO, Irakurle Kluba abian jarritz

• Zer iruditzen zaizu irakurle klubaren egitasmoa?

Batetik, harrituta gelditu naiz jende asko etorri delako eta, bestetik, ekaina bitartera dagoen prebisioa ikusita ere; hau da hau antolakuntza alemaniarra. Gutxi egiten dira horrelako gauzak, jendeak jardutea liburuen inguruan, alegia.

• Nola ikusten duzu zuk gaur egungo euskarazko literaturaren martxa?

Normalizatu egin dela uste dut, baina

hau ona izateaz gain, bide batez txarra ere badela pentsatzen dut. Hau da, normalizazio horren alde egiteak titulu bila eta kontsumoko literaturaren alde egitea dakar. Hortaz, gehiago literatura estandarrari begira egoten dira eta ikuspegi abentureroa edo, galdu egin da. Hau da behintzat nik daukadan inpresioa. Konpartitzeak, berriz, idazlea eta irakurleen arteko erantzun-galderak sortzen ditu. Behin liburua irakurri duzunean guztia destripatzea, hori da nire ustez irakurle nahiz idazleoi gustatzen zaiguna.

Haxe da Harkaitz Canok Geu-ko irakurleei eskainitako poema:

ZAPATA BATEN BARRUAN BIZI GINEN GEU

Artaud poeta lorazainak aurkitu zuen
etxe atarian hilik.

Zapata bat zeukan eskuan.

Zapata bakarra.

Urrutira jaurti gabeko zapatak asko pisatzen dio, ziur,
Artaud poetaren mamuari.

Zapata baten pisua duen mamua, ez baita mamu osoa.

Zapata baten barruan bizi ginen geu.

Eta zapata minbera bat sentitzen dugu bularraren parean,
behazuna eta taupada nahasten dituen apendiz berri bat.

Eta bularra harramazkatzen badugu lore bila
da akaso Artauden lorazainak jeranio bat landatu zuelako
behinola nagusiaren zapatan.

• Azaroaren 26a, asteazkena
Robert Louis Stevenson, Altxor
uhartea, Ibaizabal 1991.

• Abienduaren 17a, asteazkena
Patxi Zubizarreta, Barrikadak,
Alberdania 2003.

• Urtarrilaren 28a, asteazkena
Patricia Highsmith, Ripley trebea,
Igela 1999.

• Otsailaren 26a, asteazkena
Rikardo Arregi, Kartografia,
Alberdania 1998.

• Martxoaren 31a, asteazkena
Isaac Bashevis Singer, Zortzi
kontakizun, Elkar-Alberdania 2002.

• Apirilaren 21a, asteazkena
Jokin Muñoz, Joan zaretenean,
Alberdania 1997.

• Maiatzaren 26a, asteazkena
Bernardo Atxaga, Soinujolearen
semea, Pamiela 2003.

• Ekainaren 30a, asteazkena
Arantza Iturbe, Lehenago zen
berandu, Alberdania 1995.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ARABAKO ARGAZKI ELKARTEA

EGILEA:

**VEGA
GARCIA
HUMAYOR,**

Arabako elkarteko
kidea duela hainbat
urte. 2003an barrena
Madril (C.E.V.),
Ourense (III Certamen
Galego de Imaxe
Artística), Zaragoza eta
Gasteizen izan ditu
erakusketak.

Hemen ikus daitekeen
legez, zenbait
makroargazki digitalez
osaturiko erakusketa
da, non sentsualitate
handia eta formekiko
kezka bizia ageri diren.





Aisialdia

Adintsuak

Gazteak

bizi-kalitatea

Osasuna eta prebentzioa

Kirola

Kultura eskaintza



Bekak

Talde baztertuak

EQUAL

Lanbide heziketa eta enplegua

laneratzea

Gazteen artean enpresa sortzeko kultura sustatzea



Kooperazioa

Elbarritasunak

Talde baztertuak

gizartekotzea



Historia ondarea (berreskuratzea)

Kultura ondarea: hizkuntza, historia, geografia, kirola

Natura ondarea (ingurumena)

garapen iraungarria

Lurraldea sustatzea

Obra Social

Caja Vital  Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza